



**Sunsundeguiak
Altsasun Volvoren
autobus txasisak
karroztzeko
akordioa sinatu du** / 14

**Irurtzongo Udalak
Inasaren memoria
jasotzen duen
dokumentala
aurkeztuko du** / 7

**Narum CBASK
Bigarren Maila
Interautonomikoko
Lauko Finala
prestatzen ari da** / 18

**Utzubar EKO Gunean
dagoen yurta batek
Sakanako
berrerabilpen gela
hartu du** / 13

**Iker Mintegi Lazkao
Proban gailendu da
eta Euskaldun
Txapelketa irabaztea
du helburu** / 17

**Iñaki Pikabea 'Piti'
artistaren 'Ekinaren
Ekinez' erakusketa
izanen da Etxarri
Aranatzen** / 22-23

Sukar gorria

Gorritxo sakandarrak Sevilla bidean dira,
milaka gorritxorekin batera Osasuna animatzeko / 2-5

Sakana gorritxoa

Bere 103 urteko ibilbidean Osasunak Kopako bere bigarren finala jokatu du, Real Madriden kontra. Sakandar asko jaitsiko dira Sevillaraino Osasuna futbol taldea animatzera. Familian, lagun artean, herritarrekin... finaleko abentura bizitzeko zirrarez daude gorritxo sakandarrak, jakin baitakite Osasuna taldearen hamabigarren jokalaria direla, ezinbestekoak



UTZITAKOIA

IRURTZUN GAIZKA ANGULO BELOKI



1. Hamar lagun goaz, kua-drillakoak eta helduagoak diren ezagunak, guztiak irurtzundarrak.
2. Guztiak gara bazkideak. Urte batzuk daramatzagu Sadarren.
3. Sarrera dugu denok. Sarrena nahasmena izan zen, baina guztiak batera egongo gara Cartujan.
4. Banatuta goaz. Hiru hegazkinez joango dira, beste lau autoan eta beste hiru zalan-tzan gabilta, hegazkina hartu edo autoan joan. Bidaia luzea da, autoz 9 ordu dira, paliza handia. Erabakiko dugu.

5. Ostiralean Sevilla ezagutu: Alde Zaharra, Giralda... eta larunbatean Osasunaren Fan Zonera hurbilduko gara, bazkaldu, eta finalerako prest.
6. Partida oso-oso zaila ikusten dut, baina finala partida bakarrera izanda, aukeraren bat egon daiteke. Pronostikoa? Osasunak 2 eta 1 irabaztea, azkeneko momentuan edo luzapenean. Irabaziko balu, sekulakoa litzateke ospakizuna. Aurreko finalean ez ginen egon, aurten egongo gara, eta ea kopa ekartzen dugun. Gustura ospatuko guke.

HIRIBERRI ARAKIL MARKEL AZKONA UNANJA

1. Hamarren bat gara. Gehienak Hiriberrikoak gara. Etxarriar bat infiltratu zaigu, eta bi iruindar.
2. Batzuk bazkideak dira, gainontzekoak ez. Ni bazkide izan nintzen, baina aurten utzi nuen eta behin baino gehiagotan damutu naiz.
3. Gehienok sarrera dugu, baina bi falta zaizkigu eta horretan dabilta.
4. Bi taldetan banatuko gara. Batzuk autoz Caceres arte joango gara, eta han autokarabana bat alokatuko dugu Sevillaraino joateko. Beste batzuk Mallorcara doaz eta handik Sevi-

llara hegan egingo dute, autokarabana hartu eta autokarabana gunean elkartuko gara guztiak. Ostirala jai hartu dugu, eta goizetik abiatuko gara.

5. Ostiralean bueltatxo bat egingo dugu Sevillan, eta asmoa da larunbatean goizetik topera hastea.
6. Nik konfiantza dut Osasunak sorpresa eman dezakeela. Hala ez bada, ez dago arazorik, festa egingo dugu han. Sorpresa ematen badu, pozik, eta bestela ere, oso pozik. Irabaziko balu... ez dakit nola itzuliko ginatke (kar, kar...).



IRAÑETA MIKEL ARMENDARIZ JUANGO



1. Hiru goaz: anaia, lehengusua eta hirurok.
2. 25 urte daramatzat bazkide izaten, eta anaia ere bazkidea da.
3. Hirurok sarrera dugu.
4. Anaiak eta biok larunbatean goizeko bostetan trena hartuko dugu Iruñean, Zaragozaraino, eta bertan AHT hartuko dugu, Sevillaraino, Osasunak antolatu duen tren bidaia. Eguerdi aldera iritsiko omen gara. Lehengusua autoan jaitsiko da, beste ezagun batzuekin.
5. Osasunaren Fan Zonera hurbilduko gara, Osasunako

gainontzeko zaleekin elkartzeko, gero finalera joango gara eta finala bukatuta, goizaldeko ordu bata eta erdietan bueltako trena hartuko dugu. Paliza izango da, baina beno. Madrilgo 2005eko finalean egon ginen, eta aurten Sevillakoan.

6. Alde batetik, errealista izanda, uste dut galduko dugula, baina, bestetik, ez da itzaropena galdu behar. Agian, guk egun ona dugu eta beraiek txarra, nork daki. 1 eta 0, Osasunak irabaztea. Horren alde egingo dut.



Maidet Betelu Ganboa SAKANA

Nafarroa lurralde anitza eta zabal da, paisaian, izaeran, ohituretan, egunerokotasunean eta bizitzeko moduan. Nafar guztiok batzen gaituen elementu amankomun bat topatzea ez da erraza, baina badago salbuespen argi bat: Osasuna Futbol Kluba. Osasunak nafar guzti-guztiak batzen ditu, Beratik Cortesera eta Zior-ditik Izabara.

Osasuna futbol taldea bigarrenez sailkatu da Kopako finala jokatzeko. 2005eko ekainaren 11n Osasunak Real Betis taldea izan zuen aurkari Madrilo Vicente Calderón futbol zelaiko final goangarrian. 2 eta 1 galdu zuten gorritxoek, eta Betisek bere bigarren Kopa lortu zuen. Hemezortzi urte geroago, Kopa txapelketa bikaina jokatu eta gero, egoera berdinean daude gorritxoak, final handi baten atarian. 103 urteko historian, Kopako bere bigarren finala jokatu du Osasunak, baina kasu honetan eszenatokia eta arerioak beste batzuk dira. Talde gorritxoak Real Madrid izango du aurkari maiatzaren 6an Sevillako La Cartuja estadioan 22:00etan hasiko den Kopako final handian.

Finalak sekulako ilusioa piztu du Nafarroa guztian, baita Sa-

kanan ere. Osasunak La Cartujako finalerako 20.610 sarrera jaso zituen Espainiako Futbol Federaziotik. Horietatik %94, 19.391 sarrera hain zuzen ere, bazkideen eta "Gorritxo naiz" karneteko titularren artean jarri zituen salgai, salmenta prozesu luze eta korapilatsuan. Gainontzeko 1.219 sarrerak jokalarien senitartekoen, Osasunako langileen, babesleen eta bestelakoen artean banatu ditu klubak. Horiei bestelako bideetatik euren sarrera lortu duten gorritxoak gehitu behar zaizkio. 25.000 gorritxo baino gehiago bilduko omen dira Sevillan. Beraz, Osasunari ez zaio animorik, zalerik eta babesik faltako La Cartujan.

Fan Zonea eta Gune Gorritxoak

Osasunaren Fan Zonea edo zaleen gunea Magallanes parkean egongo da, Triana auzo famatuaren ondoan. Zubia gurutzatuta, Alde Zaharra dago. 11:00etatik 18:30ak arte egongo da zabalik, eta jate-txea, taberna, Osasuna denda, photocalla, haurrendako parkea eta jolasak, komunak, mediku-zerbitzua... denetatik izango du.

Bestalde, Osasuna kluba La Cartujatik gertu dagoen Rio Terraza aisialdi gunearekin akordiora iritsi da, eta gune hori Gune

Gorritxoak izango da. 6.500 pertsoneko toki du, eta ostiralean eta larunbatean gorritxo bilakatu da. Ostiralean 8:00etatik goizaldeko 5:00etara egongo da zabalik, eta larunbatean 18:30etik goizeko 5:00etara, eta Osasunaren ospakizunen gune bilakatu da.

Denetariko planak

Sakanako bailara eta txoko guztietatik abiatuko dira Osasuna-zaleak Sevillara. Hegazkinez, trenez, autoz, autobusez, autokarabaz... denetariko planak ondu dituzte guztiek, helburua Osasuna animatzea eta bizitza guztian oroituko duten asteburu bikaina pasatzea baita. Eta, zergatik ez, kopa Nafarroara ekartzea.

Etxean gelditzen diren gorritxoek ere behar bezala jarraituko dute finala. Sakanako herri guztietako zaleak taberna, jatetxe edo elkarteetan bilduko dira finala lagunartean edo familiar ikustera. Bazkari asko antolatu dira larunbatean, eta giroa ziurtatuta dago. Altsasu Alde Zaharreko festetan murgilduta egongo da, baina gehienek partida jarraituko dute, jai giroan. Eta, jakina, sakandar askok eta askok Iruñeko bidea hartuko dute, finala bertan jarraitu eta ospatzea. Aurreratutako sanferminak.

Gorritxo sakandarrei galderak

1. Zenbat joango zarete Sevillara?
2. Osasunako bazkideak al zarete?
3. Finaleko sarrera al duzue?
4. Nola jaitsiko zarete Sevillara?
5. Zein da plana?
6. Osasuna vs Real Madrid. Zein da zuen pronostikoa?

UHARTE ARAKIL VERONICA GONZALO ETXARRI

1. Gure taldean bederatzi goaz: adinduak, haurrak, gazteak... guztiak batera. Badakit Uharte Arakildik jende gehiago ere joango dela.
2. Guztiak bazkideak gara.
3. Guztiok sarrera dugu.
4. Bi autotan egingo dugu bidaia. Ostiral goizean abiatuko gara Uharte Arakildik, eta Sevilla erdigunean apartamentu bat alokatu dugu.
5. Ostiralean afaldu eta bueltatuko bat emango dugu. Larunbat goizean Sevilla ikusiko dugu pixka bat, eta arratsaldean finaleko giroan murgilduko gara. Pisua Osasuna Fan Zonetik oso gertu dugu, beraz, giroaren erdi-erdian egongo gara.
6. Zaila izango da, baina ahal da. Zergatik ez? Partida batean, edozer gerta liteke. 2 eta 1 Osasunaren alde. Irabaziko balu... ikaragarria litzateke.

LAKUNTZA UXUA AZPIROZ ARMENDARIZ

1. Gu familiar jaitsiko gara, bikotea eta bi semeekin, autokarabanan. Beste furgoneta batean lagunak doaz, eta baita autobusean ere. Guztira hamabost lagun inguru. Baina Lakuntzatik jende askoz ere gehiago doa. Batzuk sarrerarik gabe, kanpoko giroa bizitzeko eta Osasuna laguntzeko gogoz. Sevillara jaisteko zirrara sumatzen dugu, eta urduritasuna ere.
2. Gu lauok bazkideak gara.
3. Sarrerak ditugu. Sarrerena nahi-

ko prozesu zaila eta estresantea izan da, egia esan.

4. Ostiralean, hurrek eskola eta helduek lana bukatuta, arratsaldean, laurak aldera aterako gara. Nekea sumatzen badugu gaua egingo dugu bidean, eta indartsu bagaude zuzenean joango gara Sevillara. Autokarabana gunea Triana auzoaren ondoan dago, oso gertu. Plana? Gorritxoak jantzi eta disfrutatu. Osasuna Fan Zonera joango gara, baina gero Cartujaraino 7 km daude... giroa ikustea eta ongi pasa-

ztea. Partida ikusita, karabana gunea buelta, eta igandean etxera bueltatu. Ea nolako den buelta...

6. Hau Daviden eta Goliathen arteko norgehiagoka da. Meriturik handiena norena den, argi dugu, baina edozer gerta daiteke. Osasunak egiten duena egiten duela ere, beti jarraituko dugu beti bezain gogotsu Osasuna animatzen. Pronostikoa? Zerbait esateagatik, 2 eta 1, Osasunaren alde. Irabaziko balu... izugarria litzateke!

KOPAKO FINALA

C.A. OSASUNA

VS

REAL MADRID



MAIATZAK 6, LARUNBATA 22:00-00:00

(IRRATIKO KONEXIOA 21:45EAN)

EUSKALERRIA IRRATIAREN BIDEZ

euskalerrairratia

107.3 FM
beleixe
ZUZENEAN

948 567 074 | IRRATIA@BELEIXE.EUS

DORRAO PATXI LIZARRAGA PUEYO



1. Aurreko finalean, 2005ekoan, ez ginen joan Madrila eta aurten esan genuen: joan beharra dago, Osasuna bezalako talde txiki batendako hau ez baita urtero gertatzen. Dorraoko lehengusu batekin, Altsasun bizi den Lizarragako lehengusu baten semearekin, eta bere lagun batekin goaz laurok. Dorraotik beste bikote bat ere joango da, bi seme txikiekin.

2. Ni eta lehengusua bazkideak gara.

3. Sarrerekin goaz.

4. Hasieranlanera ateratzen gara, jendeak zuzenean nola lan egiten dugun ikus dezan.... eta azkenean autoan jaitsiko gara. Ostiralean aterako gara. Meridaraino joango gara, hura ezagutu, eta han lo egingo dugu. Eta larunbatean Sevi-

llara goaz.

5. Sevillan Osasunaren Fan Zonera joango gara nafarren artean egotea eta alde zaharrean pote batzuk ere hartuko ditugu. Gero La Cartuja estadiora joango gara. Finalaren ondoren hotelean lo egingo dugu, eta igandean buelta etxera, koparekin poz-pez gora (kar, kar).

6. Guztiek Real Madrid jotzen dute faborito, baina halako partidetan ilusioek eta gogoek asko bulkatzen dute. Madrilak ere asteartean beste partida bat dauka, Championsekoa... Nik uste bana berdinduko dugula eta penaltietan Osasunak irabaziko duela. Sergio Herrera oso ongi moldatzen baita penaltietan. Gogotsu gaude, ea ongi pasatzen dugun eta kopa etxera ekartzen dugun.

ARBIZU ERKUDEN PERERA RAZKIN

1. Sei goaz, familian. Autokarabana alokatu dugu Ascavanan, eta guztiak batera goaz. Bikotea, seme zaharrena, anaia eta iloba, eta ahizpa.

2. Guztiok gara bazkideak.

3. Sarrerak ditugu. Aitaren sarrerarekin ahizpa joanen da. Aita aspalditik denez bazkide, eta antzinasunaren arbera hartu ahal ziren sarrerak, lehendabizikoetakoak ginen eta nahiko ekonomikoak hartu ditugu. "Ikuspegi murriztukoak" dira eta agian golak entzun egingo ditugu ikusi baino, baina han egongo gara (kar, kar...).

4. Ostiralean aterako gara, 16:00ak aldera, Sevillarantz. Ez dugu autokarabana generik hartu; La Cartuja futbol zelaitik ahalik eta gertuen

aparkatzen saiatuko gara, abenturan.

5. Sevilla zer edo zer ikusten saiatuko gara. Osasunak Fan Zone edo gunea du, baina ez dugu goizetik han sartuta egon nahi, bueltaxo bat eman nahiko genuke. Goizean Sevilla pixka bat ikusi eta arratsaldean zaletu guztiak elkartzen diren tokira joan eta elkarrekin denok futbol zelaira joan. Ea haurrek aukera ematen diguten.

6. Osasunak irabazi, jakina! Ilusio horrekin joango gara. Athletic-en kontra ere ez genuen ustez asko egiterik, eta irabazi egin genuen. Zergatik orain ez? Partida bakarra da eta edozer gerta daiteke. Ilusio eta itxaropen horrekin goaz. 2 eta 1, Osasunaren alde.



ETXARRI ARANATZ LUIS GOÑI IGOA



1. Anaia eta ni joango gara elkarrekin, eta Sevillan ilobarekin eta haren kuadrillakoekin elkartuko gara. Hamauren bat lagun izango gara guztira. Etxarri Aranaztik jende asko jaitsiko da Sevilla, hala entzuten da.

2. Anaia bazkide da. Ni eta iloba bazkideak izan gara, baina guaixe bertan ez gara.

3. Anaiak, ilobak eta hirurok sarrerak ditugu, baina ilobaren kuadrillakoek ez. Haiek Sevillako giroa biziko dute.

4. Anaia eta biok trenaz joango gara. Larunbatean 7:30ean aterako gara Iruñetik, Zaragozaraino. Han, AHT hartuko dugu eta 14:00ak aldera iritsiko omen gara Sevillara. Partida bukatu eta ordu pare batera trena hartuko dugu etxera itzultzeko.

5. Osasunaren Fan Zonera joango gara. Beroa egingo duela diotenez, horri kontra egiteko kalimotxo batzuk

hartu beharko ditugu (kar, kar...) eta hango giroaz gozatu. Eta ahal den guztian ongi pasatu, halako aukerarik ez dakit beste inoiz izango ote dugun. Beraz, ahal den gehiena disfrutatzea da asmoa.

6. Alde batetik, esperantza handirik ez dut, egia esateko. Ez nago oso konbentzita, agian gero zartakoa horren handia ez izateko. Baina, bestetik, ezin dut esan Osasunak galdu egin behar duenik. Beraz, 0 eta 1, ea Osasunak irabazten duen. Ilusioa izan behar da beti, partida batetan ez baitakigu zer gerta daitekeen. Ea Osasunak irabazten duen. Osasunak irabaziko balu... akabo, errematea litzateke. Agian trena galduko genuke, ez dakit trenean itzuliko ote ginen (kar, kar...). Eta Etxarrira iritsi baino lehen, Iruñean geldialdia egingo genuke, jakina.



MUSIKAZ BLAI

Saioa JAURENA ATXA

Errugbi jokalaria ahia / ELIZONDO

Ezetz asmatu zeintzuk diren bere kantu kuttunak

Piztu irratia!

Maiatzak 5, ostirala, 10:30etik aurrera

Beleixe irratian





BAKAIKU IRUNE LOPEZ DE ZUBIRIA URIZ

1. Anai eta biok goaz Sevillara, gurasoekin. Bakaikutik ere jende gehiago jaitziko da.

2. Ni eta bikotea bazkideak gara, baina mutilak ezin duenez jaitzi, anaia doa bere partez.

3. Anaiak eta biok sarrera dugu, eta gurasoek kanpoan ikusiko dute.

4. Autoz joango gara. Gurasoek eramango gaituzte. Joan eta etorri egingo dugu. Larunbatean oso goiz aterako gara, bostak aldera, eguerdirako iristeko. Partida ikusi eta buelta etxera.

5. Momentuan ikusiko dugu, ez dugu zehaztu. Giroaz gozatu nahi dugu, hemengo jendearekin elkartu... La Cartujara joango gara, eta anaia eta biok estadiora sartuko gara eta gurasoek ondoan dagoen tabernan ikusiko dute partida, Osasunak prestatu duena.

6. Nik uste edozer gauza gertatu daitekeela. Real Madrid talde oso ona da,



baina partida bakarra izanda nik uste dut 2 eta 1 irabaziko dugula. Irabaziko balu ikaragarria litzateke, izugarritzko parranda. Ea egonaldia luzatzen zaigun... (kar kar).

ITURMENDI MIKEL GALARZA MAIZA

1. Iturmenditik 25en bat inguru joango gara: gazteak, nagusiak, familiak, haurrak... denetarik. Gorritxo asko gauden Iturmendin.

2. Den denak ez, baina gehienak bazkideak gara. Gure kasuan, etxeko laurak, bikotea eta bi haurrekin.

3. Guztiok sarrera daukagu.

4. Banatuta joango gara. Helduenak hegazkinez doaz. Batzuk auto partikularretan. Gure kasuan, haurra duen beste familia batekin elkartu gara eta furgoneta bat alokatu dugu bi familiak elkarrekin joateko. Zazpi gara. Ostegun gauz abiatuko gara,

haurrendako bidaia erosoagoa izateko.

5. Guk hotela hartu dugu Sevillan. Ostiral eta larunbat guztia dugu Sevillan giroan gustura egoteko. Lo egin eta igandean buelta egingo dugu.

6. Zaila izango da, baina futbolak gauza asko eman ditzake, ea aukera dugun kopa Nafarroara ekartzeko.

Nik uste dut partida husna bukatuko dela eta penaltietan erabakiko dela. Eta hor ea Herrerak geldialdi bikainak egiten dituen... Gertatzen dena gertatuta, gure kasuan hotelera joan beharko dugu.

**URDIAN JAVIER LOPEZ DE GOIKOETXEA**

1. Sei lagun goaz Sevillara, semea eta lagunak, guztiak nahastuta. Badakit herritik beste lau joango direla, familia bat.

2. Bazkideak gara.

3. Guztiok sarrera dugu.

4. Athletic-i finalerdia irabazi bezain pronto berehala begiratu genuen apartamentu bat, Sevillan bertan lortu genuen. Eta zazpi tokiko furgoneta bat alokatu dugu Sevillara joan etorria egiteko.

5. Ostiral eguerdian aterako gara, han egingo dugu gaua, eta larunbatean, parranda eta finala ikusi. Bertan lo egin,

eta igandean, lasai-lasai egingo dugu buelta. Osasunako Fan Zone 11:00etatik zabalik egongo da, beraz, han inguruan ibiliko gara hemengo jendearekin. Alde zaharra ere nahiko gertu omen dago... bueltaren bat egingo dugu.

6. Oso zaila da, baina irabazteko apustua egingo dut. 2 eta 1, Osasunaren alde. Galduta ere ongi, Osasuna bezalako talde batendako sekulakoa baita final batera heltzea. Historian bigarrean aldia, 100 urtetan. Irabaziko balu? Agian ez gatoz lanera (kar, kar...).

ALTSASU ASIER BERAMENDI GALLO

1. Lau lagun joango gara, 2005eko Kopako finalera ere Madrilera elkarrekin joan ginenak, orduan Sakanako Gorritxoak taldeetik antolatu autobusean abiatu ginen.

2. Bazkidea naiz.

3. Sarrerak ditugu.

4. Autoan jaitziko gara. Ostiral gauean aterako gara. Furgoneta batean goaz, larunbata Sevillan emango dugu eta igandean buelta egingo dugu.

5. Osasunaren Fan Zonean gainontzeko gorritxoekin bilduko gara eta gero La Cartujara joango gara, gorritxoek nola irabazten duten ikustera.

6. Ez dut zalantzarik, argi eta garbi Sevillatik kopa ekarriko dugu. Taldeak nola jokatzen duen ikusita, hala sentitzen dut. 2 eta 1, Osasunaren alde. 2005ean ilusio handiz joan ginen Madrilera, baina luzapeneko azken momentuan, bana berdinduta geundela, Betisek garaiaren gola sartu zuen. Penaz itzuli ginen Madriletik, oso triste, batzuk negar maltotan. Baina, hala ere, cava botilak genituen eta topa egin genuen. Aurten kopa irabaziko dugu eta kaskainetekin etorriko gara Sevillatik (kar, kar...).

**OLAZTI OLATZ BADOS GANUZA**

1. Bost goaz. Aita eta ni, beste lagun bat eta bere semea, eta beste lagun bat.

2. Gainontzeko laurak bai, baina ni ez.

3. Sarrerak ditugu.

4. Ostiral eguerdian abiatuko gara, Meridaraino. Han gaua egingo dugu. Larunbat goizean autobusa hartuko dugu Meridatik Sevillaraino, eguna bertan pasako dugu, eta finalaren ondoren, goizaldeko ordu bata eta erdietan autobusa hartuko dugu Merida-

raino joateko. Igandean itzuliko gara etxera.

5. Goizean Sevilla pixka bat ezagutzeko asmoa dugu, bueltatxo bat emateko. Eta gero La Cartujara gerturatu gara, Osasunak duen Gune Gorritxora.

6. Partida zaila da, baina zeinek daki! Irabaztea espero dugu, ilusio horrekin goaz, baina bestela ere ongi pasatzea da asmoa. Osasunak 3 eta 2 irabaziko dio Real Madridi. Irabaziko balu, eromena litzateke!

ZIORDIA JUANJO OTXOA CERDAN

1. Familia goaz, emaztea eta bi seme alabak. Ziordiko lagun bat ere badoa, bere aldetik.

2. Ni eta bi seme-alabak gara bazkideak, emaztea ez.

3. Laurok ditugu sarrerak.

4. Lo egiteko prestatutako furgoneta bat hartu dugu. Ostiralean abiatuko gara eta bidean geldituko gara lo egitera. Larunbatean iritsiko gara Sevillara. Karabana gune batean tokia hartuta dugu.

5. Momentuan erabakiko dugu, baina uste dut Osasunaren Fan Zonera joango garela, haurrendako ere

ekitaldiak baitituzte. Alde Zaharra Fan Zonetik gertu dago eta pentsatzen dut ere bertara joango garela. Astelehena eta asteartea festa dugu, eta lasai igoko gara, toki interesgarriak ezagutuz.

6. Bihotzari kasu egiten badiot, irabaziko dugula sentitzen dut, baina zaila da. Baina irabaziko dugula, irudipen hori dut. Futbolak duen onena da partida batean edonork irabazi dezakeela, hortaz... Nik 1 eta 0 Osasunaren alde. Irabaziko balu... sekulakoa litzateke.





ASTEKOA

MIKEL MAZKIARAN LOPEZ DE GOIKOETXEA

Dirudi

Azken aldian adimen artifiziala albiste izan da hainbat arrazoirengatik. ChatGPT bezalako aplikazioek, adibidez, 1.000 hitzeko testuak sor ditzakete Sakanako historiari buruz. Adimen Artifiziala imajina ezin dugun abiaduran doa. ChatGPTk, merkaturatu eta bi hilabetera, 100 milioi erabiltzaile baino gehiago izan zituen (TikTok-ek bederatzi hilabete behar izan zituen kopuru hori lortzeko). Adimen artifizialak gure eguneroko bizitzan duen eraginaren adibideak asko dira. Bitxia, eta aldi berean korapilatsua, iruditu zaidan bat aipatuko dut.

Boris Eldagsen, ospe handiko argazkilaria alemaniarra, Argazkigintzaren Mundu Erakundeak urtero antolatzen duen nazioarteko lehiaketa batean saritu zuten. Epaimahaiaren arabera, "saritutako argazkiak hainbat belaunalditako bi emakumeren zuri-beltzeko erretratu bitxi bat irudikatzen zuen, 40ko hamarkadako erretratu familiarretako hizkuntza bisuala gogorarazten duena".

Baina Boris Eldagsenek gutun bat bidali zuen sariari uko eginez, eta ironiaz eskerrak eman zituen bere argazkia aukeratzeagatik, AAK sortutako lehen irudia baitzen nazioarteko argazki-lehiaketa garrantzitsu bat irabazten zuena. Ekintza horren bidez, argazkigintzatzer hartu behar den eztabaidatu nahi zuen.

Albiste honek herriko bizilagunen Whatsapp bidez batzuetan jasotzen ditugun argazki zaharrak ekarri dizkit gogora. Adimen artifizialari esker, edozein egunetan neure burua ikusiko dut duela 70 urteko argazki batean, aitona besoetan dudala. Eta irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela diote; Chat GPTrenak ez badira, noski.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). **GUAIXE**k eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Mugak jartzearen beharra

SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK
Orokorrean pertsona guztiei mugak jartzea zaila egiten zaigu, zailtasunak ditugu esparru honetan. Ez gara eroso sentitzen ondokoari ezezkia eta "honaino" esan behar diogunean, edo egiten ditugun askotan ez dugu modu egokian egiten. Gure bizitzako esparru eta harreman guztietan agerian jartzen da gai hori. Seme-alabekin, bikotearekin, senideekin, lagunekin edo lan munduko pertsonekin gertatzen zaigu zailtasun hori.

Pertsona batzuk autoritarioagoak (nik esaten dudalako, zure ama-aita naizelako... eta horrelako mezuak erabiliz) eta beste batzuk permisiboagoak izan ohi gara. Gure joera alde batera edo bestera gehiago joaten den arren, denok erabiltzen ditugu bi estiloak,

maiztasun edo intentsitate handiagoarekin edo txikiagoarekin. Zenbat kostatzen zaigun mugak jartzea!

Oro har, bi modutan jokatu ohi dugu: gure gurasoek egin dutena errepikatuz, edo, kontrako leku batean kokatuz, jasotakoaren zuzeneko erreakzio gisa, "ez dut gurasoek egin zidatena egingo".

Mugak jartzearen inguruan entzuten dugunean, besteei mugak jartzean pentsatu ohi dugu. Baina bada ere norberari, bakoitzak bere buruari, mugak jartzearen beharra. Norberarekin egiten ez duguna, besteekin egiteko ez gara gai izango; beste modu batera esanda, geure buruarekin praktikatzu ikasi dezakegu besteekin erabiltzen.

Gure pentsamenduei, sentipenei, ekintzei, hitzei eta abarrei mugak ezartzeko zailtasunak izan ohi ditugu; adibidez, gelditzea edo atsedean hartzea komeni zaigula jakinda ere, ekintzan jarraitzen dugu askotan. Horrek prezio bat izango du norberarengan, beharrak ez direlako orekan egongo eta ondorioz gure harremanetan eragina izango duelako.

Mugen inguruan gehiago hausnartzea gomendagarria da, bakoitza non eta nola kokatzen den ohartzeko. Mugen inguruan garrantzitsua da jakitea: nire mugek, nire premiak zaintzeaz gain, besteei segurtasuna eta babesa transmititzen dietela eta ezetz esaten dugun aldiro, beste zerbaiti bai esaten ari gatzazkiola.

GUTUNA

Eskerrak

JON ETXARRI GALARTZA

Urdiaingo familia berrien partez, eskerrak eman nahi dizkiogu Eider Garderi haurtzaroaren garapenari buruzko jakintza gurekin guztiokin partekatzeagatik "Mundua eraldatzeko giltza, guregan eta etorkizunean dagoenaren kontzientzia piztearren".

0-3 publiko eta doakoaren alde!

ZUEKIN GAUDE

ZUZENKETA

Aurreko zenbakian, 12. orrian, maiatzeko hauteskundeetara aurkeztutako hautagaitzen berri eman genuen. Nafarroako Parlamentura EH Bilduk aurkeztutako zerrendan lau sakandar zeudela jakinarazi genuen, baina bost dira, Oihana Gallo San Roman 12. postuan baitago.



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Maite Iparragirre Astiz

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidar Betelu Ganboa
kirrolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Dokumentalerako hainbat kontakizunen berregiteak egin dituzte. IRURTZUNGO UDALA

Memoriarako aluminio fabrika

Langileen Nazioarteko Eguna pasa berritan, Irurtzungo Udalak Inasako langileen borroka gordetzeko egindako dokumentala gaur mustuko du. Udalaren ikus-entzunezkoak 2012an kaleratu zituzten 155 langileak omendu nahi ditu

IRURTZUN

Arakilgo kontzejuetako bat zen Irurtzun eta 400 biztanle zituen 1956an. Huarte enpresa taldeak, Espainiako kapitalarekin batera, Industria Navarra del Aluminio SA, Inasa, lantegia herrian ezarri zuen. 1962an, Reynolds International multinazionala akziodun egin zen. Estrusio eta galdaketa ontziak handitu edo ontzi berriak eraiki ziren. Paretik pasatzen zen errepidean langile premia adierazten zuen kartela jarria zegoen.

Irurtzun eta Arakilgo ekonomia eraldatu zuen Inasak, baita herria ere. Izan ere, Gazte-

latik, Extremaduratik, Andaluziatik... makina bat langile familia erakarri zituen. Herriak denbora gutxian populazioa ia laukoiztu zuen, 1.500 biztanle izatera pasaz. Horrek Irurtzunen urbanismoa itxuraldatu zuen hirigintza planik, azterlanik eta hirigintza irizpide iraunkorrik ez zegoen garaian.

DOKUMENTALAREN OSAGARRI GISA IRURTZUNGO UDALAK LIBURUA ERE ARGITARATU DU

Familia etorri berriek etxea behar baitzuten, "ugazaben etxeaz" aparte.

Reynolds taldeak Inasaren kapital ia guztia eskuratu zuen 1973rako. Multinazional amerikarrak Inasaren adarrak saldu zituen 1998an: laminazioa VAWi eta estrusioa Alcoari (ekoizten jarraitzen du gaur egun). Lau urteren ondoren, 2002an WAVek Hydrori saldu zion. Laminazio negozioa Hydroren esku zazpi urtez egon zen, 2009ko akaberan Baikap jabetu baitzen hartaz. Haiek izan ziren lantegia ixtea lortu zutenak.

Mustutzeaz

Gaur aurkeztuko den dokumentalean langile, senide, sindikatuetako kide eta udal ordezkarien oroitzapenak jaso dira. Haien lekukotzen bidez "lantegiari buruzko ahozko memoria gorde nahi izan dugu", azaldu du Aitor Larraza Carrera alkateak. Gaineratu duenez, "dokumentalak industria espazioari lotutako herri baten eboluzioa erakutsi nahi du. Lan eskubideen lorpean langile haien antolakuntza, elkartasuna eta eraginari duen balioa aitortu nahi diegu. Giro bizi hark Irurtzungo gizartea eta kultura aldatu zituen".

Udalak argitalpen bikoitza egin du. Alde batetik, *Inasa: Irurtzungo langileon indarra eta arnasa* izenburuko ikus-entzunezkoa. Hamahiru pertsonari egindako elkarrizketen parsarteak jasotzen ditu. Haiek kontatutakoen berregiteak ere tartekatu dituzte. Horiek irurtzundar gazteen parte hartzearekin egin dituzte. Garai bateko argazkiak eta prentsa zatiak ere ageri dira. Lanak 63 minutuko iraupena du, eta euskaraz eta gaztelaniaz azpituatutako bertsioak ditu.

Horren osagarri, udalak 48 orriko liburuak argitaratu du. Bere edukien artean daude elkarrizketatuen fitxa, enpresaren ibilbidearen eta langile borroken denbora lerroa erakusten duen infografia eta orduko argazkiak. Liburuak USB txartela du, eta han jasota daude dokumentalaren bi bertsioak.

Lana materia gabeko ondarearen bilketan aditua den Labrit Multimedia enpresak egin du. Egindako lana "Irurtzungo iragan hurbila ezagutzeko herriaren oraina ulertzeko beste tresna baliagarri bat izatea", espero dute.

Elkarrizketatuak

Inasaren inguruko udalaren lanean hamahiru pertsonak parte hartu dute. Batetik, Francisco Cortajarena Lacunza, bizikletak konpontzen zituena. Bestetik, Visitación eta M^a Cruz Nagore irurtzundarrak, etxekoan janari denda eta tabernan lan eginda-koak. M^a Cruz taxi gidaria eta Inasako administratiboa izan zen. Domingo Nagore Ibañez, pilotaria, pentsua banatzen lan egin zuen. Haiekin batera, Patxi Xabier Goñi Lazkano Inasako langile ohia eta langile asanbladekin lotura handia izandakoa. Manuel Santander Astibia etxeko okindegian eta bere kamioiarekin garraioan ibili zen. Goyo Fernandez Gutierrez, berriz, Palentzian sortua, Inasan lan egin eta, min hartuta, lanari utzi behar izan zion. Ion Cordon Gonzalez Inasako langile ohia, hura utzi eta taxi gidari aritu zen.

Horiez aparte, Maria Jesus Lakuntza Beunza Inasako administratiboa izandakoa ere elkarrizketatu dute. Andoni Ruiz Higuera Inasako langilea eta CCOOko ordezkaria izan zenak ere utzi du lekukotza. Baita Miguel Maria Aldayak ere. Langile ohia, asanbladatan oso aktiboa izan zen. Maite Moreno Iribas, berriz, Inasan lanean hasi zen aurreneko emakumeetako bat izan zen, lantegian osatu zuen bere lan bizitza. Inasa itxi zenean Txiki Iriarte Vitoria zen Irurtzungo alkatea eta bere testigantza ere jaso dago. Garai triste hartan enpresa batzordean LABeko ordezkaria zen Fernando Carrion Galarza. Eta azkenik, Maite Etxetxikia Cigandak ere bere kontakizuna utzi du. Garai hartan, Etxetxikiak taberna zuen Irurtzunen, eta bere senarrak Inasan lan egiten zuen.

ZURE PUBLIZITATEA HEMEN



Informazio gehiago:
948 564 275 | 661 523 245
publi@guaixe.eus
guaixe.eus/publizitatea/



Udaletako hautagaitzak

ARAKIL

EH Bildu

1. Oihana Olaberria Jaka
2. Raul Angulo Blanco
3. Irantzu Escudero Jaka
4. Alfonso Nuin Cartujo
5. Julen Llorens Espada
6. Iker Alegre Santander
7. Naiara Mariñelarena Martinez

Ordezkoak

1. Idoia Loigorri Villares
2. Pablo Urrizelki Martinez

IRURTZUN

EH Bildu

1. Unai Razkin Iriarte
2. Ana Balda Sanjuan
3. Aitor Larraza Carrera
4. Irati Ollakarizketa Iriarte
5. Joseba Royo Garcia
6. Agurtzane Garijo Peralta
7. Jon Navarro Carrillo
8. Juan Jose Iriarte Vitoria
9. Tamara Angulo Blanco
10. Ivan Calvo Oroquieta
11. Ana Maria Santander Lizaso

Ordezkoak

1. Felix Javier Mendia Villanueva
2. Naiara Garcia Royo
3. Eduardo Murugarren Frances

UPN

1. Luis Enrique De la Calle Moreno
2. Domingo Goñi Sarasola (Independentea)
3. Miguel Angel Martinez Garcia (Independentea)
4. Antonio Vilches Corral (Independentea)
5. Natalia Alcaraz Jodar (Independentea)
6. Freddy Jacinto Canales Capurro (Independentea)
7. Jacqueline Del Rocio Rojas Suarez (Independentea)
8. Natividad Lazkoz Artanga
9. Maria Adoración Agirre Busto
10. Rafael Francisco Antoñana Chasco
11. Jose Luis Pastor Ochoa

IRAÑETA

Orbela

1. Jorge Vitoria Gasanz
2. Belen Orkarai Barberena

3. Odei Zabala Bengoetxea
4. Susana Azkona Biurrun
5. Jose Ignacio Arangoa Zia

UHARTE ARAKIL

EH Bildu

1. Jose Domingo Huarte Baleztena
2. Amagoia Betelu Aldaz
3. Arkaitz Los Arcos Bertiz
4. Eneko Martiarena Betelu
5. Ane Huarte Razkin
6. Miren Ustarroz Goñi
7. Arantzazu Larrañaga Urien

Ordezkoak

1. Juan Jose Goikoetxea Berasategi
2. Julen Martiarena Arza
3. Itziar Retegi Martiarena

Partido Popular

1. Sonia Gimenez Alarcón
2. Dario Molina Barca
3. Javier Tirso Urruela García
4. Jesús Carrero Garcia
5. Maria Lourdes Tamayo Rodriguez
6. Angeles Martinez Temprano
7. Jose Manuel Hernando García

ARRUAZU

Batzalarre

1. Amaia Garcia Mendioroz
2. Gorka Ovejero Ganboa
3. Leire Ganboa De Miguel
4. Mikel Aizpun Andueza
5. Xabier Ganboa De Miguel

UPN

1. Francisco Javier Esandi Riñón
2. Asunción Mayor Puy
3. Pedro Pamplona López
4. Mikel Herranz Oiz
5. Jose Ignacio Lopez Borderias

LAKUNTZA

EH Bildu

1. Oihane Uribeetxebarria Garmendia
2. Sergio Goikoetxea Bergera
3. Rita Torrico Muniz
4. Jose Manuel Azpiroz Armendariz
5. Eva Leatxe Itoiz
6. Patxi Xabier Razkin Sagastibeltza
7. Miriam Mendikute Garate
8. Asier Gartzandia Ormaetxea
9. Mikel Aingeru Lopetegi Olsagarre

Ordezkoak

1. Xabier Lizarraga Andueza (Independentea)

2. Jokin Goikoetxea Bergera

ARBIZU

EH Bildu

1. Francisco Javier Razkin Flores
2. Ane Lizarraga Begiristain
3. Mateo Berastegi Astiz
4. Amets Flores Gartzandia
5. Mitxel Zenarruzabeitia Unamuno
6. Miren Idoia Etxeberria Arrarats
7. Maitane Intxaurraga Uribarri
8. Mikel Berastegi Unzilla
9. Ainhoa Izagirre Izagirre

ERGOIENA

Askogain

1. Miren Iosune Andueza Osteriz
2. Eneko Etxarri Amorin
3. Blanca Reyes Senar Solis
4. Naroa Etxarri Senar
5. Lorenzo Nuñez Perez
6. Erkuden Carravilla Lezea
7. Miriam Berastegi Gurutzarri

Ordezkoak

1. Unai Navarro Aristorena
2. Mikel Beltza Goldarazena



Botoa eta irisgarritasuna

Mugikortasun arazoak dituzten pertsonendako, posta bidez botoa emateko inprimakiaren eskaera hura ordezkatzen duen beste pertsona baimendu batek egin ahal izango du haren izenean, Correosen edozein bulegotan, maiatzaren 18ra arte. Bestetik, ikusmen urritasun larria duten pertsonen doako telefonora (680 255 849) deitu behar zuten maiatzaren 1era arte, braille bidezko dokumentazio osoa bermatzen dion bozketa prozedura irisgarria eskatzeko.

Batzaramendi

1. Maria Soledad Mozo Galarza
2. Miren Maite Mendinueta Resano
3. Irantzu Mozo Berastegi
4. Iosu Marin Lizarraga
5. Koldo Sansinenea Rodriguez
6. Idoia Resano Igoa
7. Javier Mozo Lizarraga

ETXARRI ARANATZ

EH Bildu

1. Maria Saez de Albeniz Bregaña
2. Lur Iosu Larraza Lopez
3. Jesus Razkin Ijurra
4. Silvia Sesma Nazabal
5. Arturo Carreño Mundiñano
6. Arkaitz Errazkin Beltza
7. Rafael Lakuntza Mendinueta
8. Sonia Ulaiar Reparaz
9. Iban Verdugo Markotegi
10. Blanca Susana Sureda Romero
11. Silvia Maraño Chasco

Ordezkoak

1. Naroa Anso Iriarte
2. Amagoia Lizarraga Perusqui

Partido Popular

1. Iker Conrado Marcos Arenas
2. Ana Helena Navarro Ruiz
3. Alberto Vicente Hernandez
4. Gema Laso Araguas
5. Jose Maria Bello Bello
6. Maria Olga Iglesias Ruiz
7. Ramses Corrales Amaya
8. Marta Laso Araguas
9. Antonio Manuel Santos Esteban
10. Natividad Martin Ayuso
11. Jose Enrique Sanchez Nuñez

UPN

1. Juan Frommknecht Lizarraga
2. Julio Martin Bidaurre Ruiz
3. Gonzalo Sola Martinez
4. Javier Perez Arbiol
5. Mikel Altuna Mariezkurrena
6. Felix Zapatero Soria
7. Manuel Maria Lazkoz Artanga
8. Fernando Gonzalez Sesma
9. Maria Aranzazu Arias Leiro
10. Mari Carmen Miñes Zueco
11. Cristina Altuna Otxotorena

BAKAIKU

EH Bildu

1. Egoitz Urritza Lazkoz
2. Josetxo Kintana Larraza
3. Saioa Esther Zelaia Anso
4. Ekhi Etxeberria Kaiuela
5. Haizea Galarza Barandiaran
6. Mikel Galarza Quintana
7. Eneko Larraza Aleman

Ordezkoak

1. Francisco Javier Zeberio

- Arraras
2. Maria Concepcion Etxeberria Solis
3. Laura Erdozia Lopez de Zubiria

ITURMENDI

Hautagaitzarik ez

URDIAN

EH Bildu

1. David Carmelo Oroz Alonso
2. Mikel Azkona Unanua
3. Ander Galarza Lopez de Goikoetxea
4. Imanol Etxarri Galartza
5. Bingen Galartza Iparragirre
6. Oihane Agirre Ulaiar
7. Julen Goikoetxea Urdiain

ALTSASU

EH Bildu

1. Ainize Ibartutxi Iparraguirre
2. Jesus Galartza Zelaia
3. Amaia Abucide Aylagas
4. Juan Jose Goikoetxea San Roman
5. Hodei Alegre Gil
6. Goiuria Anso Iriarte
7. Jose Antonio Donlo Becerril
8. Ane Zelaia Ruiz De Egin
9. Maria Idoia Goikoetxea Gomez
10. Iñaki Rubio Mendoza
11. Ainara Ondarra Utrilla
12. Alberto Anton Reparaz
13. Maria Asuncion Fernandez de Garaialde-Lazkano

Ordezkoak

1. Maria Isabel Pozueta Fernandez

Geroa Bai

1. Javier Ollo Martínez
2. Idoia Ibañez De Opacua Amillano
3. Manuel Bergera Ijurko
4. Mari Carmen Viana Murga
5. Julen Diaz Oiarbide
6. Santiago Luceño Arias
7. Pedro Jose Iglesias Mendiluze
8. Pedro Jimenez Elvira
9. Joseba Jokin Zelaia Oiarbide
10. Maria Jesus Miguel Barriocanal
11. Monica Guajardo Arangiz
12. Visitación Grados Cabeza
13. Unai Hualde Iglesias

Ordezkoak

1. María Isabel Fernández Saenz De Muniain
2. Fermin Zabala Ruiperez

Partido Popular

1. Marta Melero Catalan

- Almudena Blanco Martin
- Francisco Antonio Sarabia Narvaez
- Jorge Moyano Cabrera
- Mercedes Rodriguez Llagas
- Valentin Mariano Franco Navarro
- Maria Victoria Roldan Espejo
- Miguel Marcos Sanchez
- Maria Dolores Panadero Gomez
- Pedro Ortego Saiz
- Marisol Ortega Rodriguez
- Aurea Villadangos Gutierrez
- Javier Jorge Guerra Fernandez

UPN

- Juan Losa Ocariz
- Alvaro Arevalo Jimenez
- Pedro Gonzalez Felipe
- Yolanda Ibañez Perez
- Paula Marin Hernandez
- Jose Miguel Inbuluzketa Ferreiro
- Maria Felisa Casado Oliver
- Asuncion Gregorio Ibañez
- Jorge Esparza Garrido
- Ana Elizalde Urmeneta
- Cristina Lopez Mañero
- Francisco Gaston Agirre
- Eduardo Sanzol Baztan

Zurekin Nafarroa

- Gonzalo Montoya Serrano
- Adriana Remigio Rodriguez
- Pedro Santano Cava
- Erkuden Mercero Ezquerria
- Juan Luis Lopez Muñoz
- Marta Barquilla Barroso
- Arturo Carreño Parras
- Maria Patrocinio Ezquerria Hernando
- Jose Miguel Castro Lopez
- Juan Manuel Malato Costa
- Maria Asuncion Palomino Mateo
- Jose Pedro Palacios Baz
- Maria Del Mar Vera Fernandez

Ordezkoak

- Aurelio Lucas Andrades

OLATZAGUTIA**EH Bildu**

- Joseba Bizuete Askargorta
- Jose Manuel Tomas Armendariz Catalan
- Alea Orabengoa Caro
- Asier Vicente De Miguel
- Izaskun Landa Lasa
- Unai Ruiz Larraza
- Urtzi Marquinez Grados
- Marta Barrenetxea Gomes
- Nekane Anton Reparaz

PSOE

- Jose Maria Acerete Sanchez

**Posta bidezko botoa**

Estatuan bizi eta posta bidez botoa eman nahi duenak maiatzaren 19ra arteko epea du eskaera egiteko. Pertsonalki Correosen bulego batera joan behar du. Eskaera egin eta beharrezko materiala jasota, posta ziurtatuaren bidezko botoa maiatzaren 24ra arte bidali ahal izango du.

- Charlly Cardenas Isuiza
- Ana Azkarate Sainz
- Jose Javier Barba Ruperez
- Maria Pilar Molina Niño
- Fernando Diez Bazan
- Raquel Barba Lacarra
- Jesus Angel Diez Bazan
- Maria Pilar Sanchez Perez

UPN

- Jon Angulo Martinez
- Miguel Bujanda Zirauki
- Eleuterio Lafuente Huiza
- Nexo Lucio Escobar Loza
- Carolina Moreno De Gracia
- Maria Jose Ibañez Perez
- Jose Maria Navarro Fandos
- Raquel Garbayo Berdonces
- Angel Miral Magaña

ZIORDIA**EH Bildu**

- Olatz Irizar Martinez
- Rosa Maria Mendoza Arregi

- Oscar Otsoa Etxeberria
- Mikel Percas Gastesi
- Mireia Saez Bengoetxea
- Alain Percas Ereño
- Maitane Alzelai Urdiain

Geroa Bai

- Miguel Angel Agirre Larraza
- Fernando Fuste Martin
- Consuelo Ramirez Forcada
- Maria Eusebia Esparza Lizarraga
- Erkuden Goikoetxea Askorbe
- Nerea San Roman Apezetxea
- Epifano Agirre Imaz

Kontzeju hauteskundeak**URRITZOLA****Urritzolako Independentek**

- Fermin Mariñelarena Iraizoz

ERROZ**Errozko Independentek**

- Begoña Omatos Soria
- Laura Ruiz De Erenchun Ramirez
- Oskia Legarra Urdiain
- Ana Aragoneses Rubio

IZURDIAGA**Izurdiaga Independentek**

- Irati Huarte Mayora
- Oskia Larunbe Huarte
- Joseba Huarte Mayora
- Julen Larunbe Perez
- Ander Otxoa Larunbe

ETXEBERRI**Etxeberri Taldea**

- Javier Martija Etxarri
- Alondra Amoztegi Moya
- Felix Lopetegi Soravilla
- Sonia Elustondo Labari
- Marcial Zestau Juantorena

EGIARRETA**Egiarretako Talde Independentea**

- Miguel Erbiti Fernandez
- Julen Llorens Espada
- Asier Lazkoz Garaikoetxea
- Joaquin Lazkoz Olaetxea
- Fermin Izkieta Arbilla

ETXARREN**Etxarrengo Independentek**

- Miguel Marcos Crespo
- Asier Santesteban Garcia
- Eider Santesteban Mariñelarena (Independentea)
- Laura Solano Macho (Independentea)
- Iker De Carlos Larrainzar

EKAI**Independientes de Ekai**

- Francisco Javier Huarte Garro

SATRUSTEGI**Satrustegiko Independentek**

- Jose Antonio Angulo Bachiller

HIRIBERRI ARAKIL**Hiriberri Arakil Taldea**

- Javier Arrieta Aniz
- Jose Luis Legarra Muruzabal

- Ander Unanua Huarte
- Markel Azkona Unanua
- Ibai Huarte Gonzalez

IHABAR**Ihabarko Independentek**

- Javier Erbiti Irañeta
- Amaia Jaka Irurtzun
- Maialen Huarte Arano
- Pablo Urrizelki Martinez
- Samuel Arraras Irañeta

LIZARRAGA**Lizarragako Kontzejua**

- Eneko Etxarri Amarin
- Narrea Etxarri Senar
- Lorenzo Nuñez Perez
- Miren Iosune Andueza Osteriz
- Erkuden Caravilla Lecea

DORRAO**Dorraoko Kontzejua**

- Jon Razkin Razkin
- Idoia Razkin Goñi
- Martin Miranda Lizarraga
- Leire Lizarraga Hurtado
- Maria Teresa Razkin Lizarraga

UNANU**Unanuko Kontzejua**

- Santiago Berastegi Lizarraga
- Sergio Espuelas Ruiz
- Jessica Ambrosio Oropesa
- Roman Mercero Berastegi

LIZARRAGABENGOA**Haitzurdin**

- Teresa Goikoetxea Arregi



KOLABORAZIOA

Berrezarpen lexikala Sakanako hitzak baliaturik

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Euskara, hizkuntza zaharra izanik eta euskaldunon lanbideak mendeetan zehar aldatuz joan direnez, hainbat eta hainbat hitzen jatorrizko esanahia egokitzen joan da eginkizun berrietara. Ezagunak ditugu **ardatz** bezalako hitzak egun hainbat jakintza arlotan erabiltzen dena, edo **hausnartu** eta **jorratu** esate baterako, jatorriz 'animalia belarjaleen ekintza' eta 'soroko lana' adierazten zutenak hurrenez hurren eta egun, 'gauzak ongi pentsatu eta aztertu' eta 'edozein gai landu' esateko ere erabiltzen ditugunak.

Eta horiekin batera badira beste zenbait hitz Sakanako lexikoan baliagarri suerta daitezkeenak sortzen diren kontzeptu berriak adierazteko eta belaunaldi berriek ez dituzte ezagutzen.

• **iragotu** (*irautu* Etxarri Aranatzek) (*Quedar obsoleto*). Sutarako egurra kanpoan, meteorologiaren eraginaren mendean, denbora asko pasatu ondoren erabat belzturik geratzen da eta ez du surik ere egiteko balio. Horrela jaso zion Andres Garmendia etxarriarrak bere ama Isidora

Izari: *Iguel dek egurroi ezpadook subai botatzen, irautuik zioi ta!* (Iguel duk egur hori suari ez badiok botatzen, iragoturik zagok eta!). Hitz bera ia, jaso zuen Juan San Martinek Eibarren, *iraotu 'revenir'*, burdin lagintzari lotua. Orotariko Euskal Hiztegia (OEH) bestalde, *iragotu* sarrera dator eta ondorengo jarraian: "*Revenir el acero después del temple, hasta irisarlarlo*". Oso egokia izan daiteke hitz hau, iragotu, egun horren erabilia den 'obsoleto' hitza adierazteko. Zaharkitu hitzak ez du zehatz-mehatz kontzeptu hau adierazten, zahartzea eta egungo beharretarako ezegoki gelditu edo suertatzea ez dira eta, gauza bera beti izaten. Etxarri Aranatzko burutzapenak primeran adierazten du iragotu dela jatorrizko hitza: *iragotu* > *iraotu* (bokal arteko herskariaren erorketa) > *irautu* (diptongazioa).

• **ikertza(tu)** iz.(ad.) (Etxarri Aranatz, Lizarraga) (*Tasar -los daños-*) Ganaduak sorotan egindako kalteak, normalean uzta jan duelako adierazten du izenak eta aditzak, berriz, egindako kalteak aztertzearen

ekintza. Egun, ezbeharren bat suertatu ondoren sortutako kalte ordainak aseguruari eskatzeko erabil daiteke.

• **pertzeko** (Etxarri Aranatz, Lizarraga) (*Comida basura*) Pertzan prestaturiko janaria animalientzako, inolako janari ongailurik gabea, beheko suko larretetik zintzilik egosita baino ez. Pertsonendako gaizki prestatutakoari ere horrela esaten zaio Aranatzko bi herri horietan gutxienez. 'Zabor janaria' itzulpena ordezkatzeko balio lezake.

• **igurain** (*igurei/igurai/ingurei*, Sakanak) (*Guarda de seguridad*) Herriko basoak eta soroak zaintzen dituen pertsona. Bere jatorrian 'iguriki' edo 'inguru + zain' egon daitezke, Unanun kontsonante herskariaren aurretik sudurkaria daramalarik, *ingurei*, entzuten baita dudarik gabe. Inguru bateko "segurata" itzultzeko erabil daiteke.

• **etro** (Sakanak erdialdea, Larraun) (*Promiscuo/a*) Gehiegikeria adierazteko erabiltzen da. Sakanak erdialdean, gehienbat jan-edanari lotua erabiltzen da. Larraunen aldiz, OEHn ageri den moduan, euriarekin: *Etro ari du 'llueve torrencialmente'* datorrelarik. Burutzapen egokia izan daiteke beste motatako gehiegikeriak ere, sexu mailakoak esate baterako, adierazteko. Horrelaxe, gaztelaniako '*promiscuo/a*' izenondo adierazteko 'etro' erabil liteke.

• **porka** (Sakanak) iz. Gai baten multzoa adierazten du. Gaztelaniako '*horca*', '*sarta*', '*ristra*' eta '*racimo*' hitzak ordezkatzeko ditu: *artaporka*, *matsporka* (mahatsporka), *batxuiorka* (baratxuriporka), ... Etxarri Aranatzek *izporka* ere erabiltzen da, izen eta izenondo moduan, 'hitz andana' eta 'hitzontzi' adierazten duela kategoria bakoitzean. OEHn modu ezberdinetan dago jasoa, baina esanahi berarekin: *morka*, *borka* (AN-ulz, Sal, R), *porka* (G-nav, AN, B). Eta badirudi hedapen handiagoa izan duela

izen honek, beti ere toponimiari erreparatzen badiogu. Ezaguna dugu guztiok, azken hamarkada hauetako arkeologia indusketak medio, Burgosko Atapuerca toponimoa. Jose Mari Satrustegi izan zen lehengotarikoa esaten hitz horrek euskal etimologia ukan zezakeela. Nik ere hala uste dut. Bere lehen osagaia, 'ate' (*ata* konposizioan), oso hedatua dago Euskal Herri osoan eta, bigarrena izan daitekeena, 'porka', oso erabilia izan da duela gutxi arte Sakanak osoan, gorago esaten nuen esanahiarekin. Hala ere, toponimo honen osagaiak hauek izatekotan, kasu honetan ere gaztelaniak izan du eragin zuzena bere bilakabidean, jatorria latinekoa duten beste kasu batzuetan gertatu den moduan erdiko bokalaren diptongazioa burutuz, hau da, o > ue bihurtu du. Hala suertatu da, esate baterako, portam > puerta, solum > suelo, ... hitzen kasuan. Beraz, 'ate' eta 'porka' izanen balira toponimoaren osagaiak, ate, sarrera edo kobazulo multzoa adieraziko luke. Ez al du zentzurik? Dena dela, eta berrezarpen lexikalera itzuliz atzera berriz, hitz hau egokia izan daiteke jatorri bereko gai multzoak adierazteko, hala nola, *izarporka* edo *izarmorka* 'konstelazioa' edo *argiporka* edo *argimorka* 'bonbilla askoko lanpara' adierazteko.

• **potokeria** (*potokei* Sakanak erdialdean) Litzarreria. Potoan saltzen zena, horrelakoak ezagutzen hasi zirenean, XX. mendeko bigarren erdian hasieran, eguneroko jakia ez zena adierazteko erabiltzen zen. Egundak 'litzarreria' edo haurren artean horren zabaldia dugun 'txutxe' hitza ordezkatzeko.

• **hesol** (Sakanak) Oholez egindako itxia edo pareta da eta 'hesi' eta 'ohol' dira bere osagaiak. Sakanaz gain nahiko hedatua dago hitz hau Euskal Herrian zehar OEHren arabera (G-to, B, BN-ciz). Hizkuntza guztiek burutzapen ezberdinak dituzte antzeko esanahiarekin, gaztelaniak esate baterako, 'pared', 'muro' eta 'tabique' bereizten ditu. Eta haxe, hesol, egokia izan



daiteke gaztelaniako azken adiera ordezkatzeko.

• **gazur** (Sakanak) Gaztari kentzen zaion ura. "*Suero de la leche*" itzulirik ageri da jaso dutenen artean. Egundak medikuntzan hain erabilia den terminoa adierazteko, 'suero', erabil daiteke.

• **txirrimiskeria** (Sakanak erdialdea) Garrantzirik gabeko eginbeharra adierazten du. Gaztelaniako "*acción o cuestión superficial*" itzultzeko balio lezake, '*peccata minuta*' kultismoaren parekoa.

• **lepatxikiko, lepagaineko** (Sakanak) Lepo atzealdean emandako kolpe txikia da. Gazteek maiz erabiltzen duten gaztelaniako '*colleja*' itzultzeko erabil daiteke.

• **portalanga, langa** (Sakanak) Bide bateko pasa oztopatzeko, altuera ezberdinetako hiruzpalau langaz osatua. Langak makil luzeak dira, bidea alde batetik bestera ixteko modukoak. "Peajea" adierazteko baliagarri suerta daiteke.

• **jareindura** (*irinddura* Etxarri, *jarein* Burundak 'askatu, libratu') Etxarrikoan esne kolpea, jezterakoan edo kumeak hartzerakoan, bat-batean datorrenean. "*Eyaculación*" hitza itzultzeko erabil daiteke, 'isurketa' (*vertido*) oso orokorra baita.

• **eseki** (Sakanak) Gari izpiek multzokaturik espala izena osatzen dute, horietako bospaseik *bala* eta azken hauetako bakoitza lotzeko erabiltzen da esekia, zikirioz egina. Ondarrak *etsaki* eta Izagirrek *etsikiya* jaso zuten Bakaikun eta Altsasun. Egokia izan daiteke 'cinta de embalar' kontzeptua adierazteko.

DUELA 25 URTE...



Urteurren bikoitza Olatzagutian

Akelarre udal ludotekak eta Maisuenea gaztetxeak hiruna urte bete zituzten, horregatik, batak eta besteak ekitaldiak antolatu zituzten. Ludotekak haurrendako jokoak antolatu zituen maiatzaren 1ean, eta haurren jaialdia hilaren 9an. Gazte asanbladak, berriz, hilaren 1etik 28ra arteko egitaraua prestatu zuen: bazkaria, kontzertuak, diapositiba eta bideo emanaldiak eta beste izan ziren.

Maiatzak, dagozkien tokian

Etxarriarrak, bakaikuarrak, iturmendiarrak eta ziordiarrek maiatzak jasotzen lanpetuta ibili ziren astelehenean. Jendetzaren begiradapean zutitu zituzten pago enborrak lau herrietan



ETXARRI ARANATZ Hamazazpi minutu eskas behar izan zituzten etxarriarrek maiatza zutitzeko, eta hori metalezko oinarri finetako bat makurtu egin zela. Bost minutu gehiago behar izan ziren soka eta zirien bidez maiatza zutik egonkortzeko.



BAKAIKU Aingibelen moztutako pagoa kuku gelditu zitzaizen bakaikuarrei. Hala ere, enborra lurrarekin berdintzea lortu eta soka baten laguntzaz 750 metroan arrastaka eraman zuten Hartzabaleraino. Enborra prestatu eta jaso zuten gero.



ITURMENDI Hemeretzi metro luzeko pagoari puntan beste lau metroko lizarra jarri zioten iturmendiarrak. Karga hori guztia jasotzeak denbora luzez ahalegintzea eskatu zien. Zutitu ondoren, Iturmendiko dantzariak jabetu ziren plazaz. Ondoren auzatea izan zen.



ZIORDIA Bi maiatza jaso zituzten ziordiarrek astelehenean. Aurrenekoa Urbasa gaineko Legunben. Ondoren, herriko bidea hartu eta Txipudia parkean bigarren maiatza jaso zuten bazkaldu aurretik. Gainontzeko herrietako maiatzen aldean Ziordikoak txarak dira.



LH institutuaren eta errepidearen artean dagoen belardian eginen du udalak aparkalekua.

Autoendako laugarren aparkalekua, bidean

Zelai kalearen iparraldean eraikiko da, Sakana Lanbide Heziketa institutuaren ondoan. 35 ibilgailurendako tokia izanen du. Eginda dagoenean, lau aparkaleku publikoetan aparkatzeko 173 plaza izanen dira

ALTSASU

Ibilgailuak aparkatzeko espazio faltaz kezka dira Zelai eta Telleria aldapa kaleetako aldamenak. Kexa bera dute Zelai kalearen iparraldean dagoen Sakana Lanbide Heziketa institutuan. Gaur egun ikastetxearen ondoan dauden plazak ez dira nahikoak inguruko aldamenek dituzten ibilgailu guztiak aparkatzeko.

Haien eskaerari erantzunez, Altsasuko Udalak ikastetxearen iparraldean aparkaleku publikoa egitea erabaki du. Javier Olló Martínez alkateak jakinarazi duenez, 1.016,44 metro karratuko partzela bat hartuko du. Hura behar bezala egokituko du udalak, eta 35 ibilgailu aparkatzeko aukera emanen du. Olló zehaztu duenez, "aparkalekuak

asfaltzoko zorua, euri ura jasotzeko sarea, lurreko eta zutikako seinalez tapena eta argiteria publikoa izanen ditu". Zelai kalean aparkalekua egiteak udalari 83.156,98 euro eskatuko dizkio, diruzaintzaren gerakinetik aterako dena.

Altsasuko Udalak ibilgailuendako eginen duen laugarren aparkaleku publikoa izanen da

Zelai kalearen iparraldean eginen duena. Egin zuen aurreneko aparkalekua Zelandi kalean dago, Zelandi eskolaren eta Constantino Salinas Jaca osasun etxearen artean. Han 47 auto sartzen dira eta 2014tik erabilgarri dago. Udalak egindako aparkalekuetatik kaskailuzko zorua duen bakarra da. Izan ere, lur saila eraikuntza enpresa batena da eta han etxebizitzak egiten ez dituen bitartean aparkaleku gisa erabiltzeko hitzarmena sinatuta dute aldeek.

Bigarren aparkalekua, berriz, San Juan eta Altzania kaleen artean dago. Azken kale horretatik du sarbidea. 2017an mustu zen, eta 25 plazako aparkalekua da. Hirugarrena, berriz, Zumalakarregi plazaren ondoan etxarte zabal batean egin zuen udalak. Erkuden eta Bakea kaleen artean dagoen 1.800 metro karratuko espazioan 66 ibilgailurendako plaza daude. Sarbidea Erkuden kaletik du. 2020ko agorrilaren 12az geroztik dago erabilgarri.

Zolatze lan gehiago

Altsasuko Udalak apirileko bilkuran erabaki zuen beste hainbat zolatze lan egitea herriko hainbat tokitan. Esaterako, Zelai kaleko 94 eta 96 zenbakien artean dagoen kalexka zolatuko du udalak. Josefina Arregi klinikaren ondoan dauden pabiloietarako sarbidea eskatu du haren jabeak. Asfaltatze lanak egin aurretik baimekin ez zuen txabiske bat bota du udalak. Horretaz aparte, Altsasuko Udalak tokiz aldatu du Zelai kaleko argiteriaren aginte koadroa, aipatu kalexkatik Amnanespila kalera.

Bestetik, Iruñea etorbideko 1. zenbakiaren pareko espaloian hainbat baldosa hautsita eta laso daude. Horrek handik ibiltzea

zailtzen du, eta, horregatik, aldamenek hura konpontzeko eskaera ugari egin dituzte. Lan horiekin batera, Zumalakarregi plazako jolas parkearen ondoan dauden bi berdegune txikiak kenduko dira, haietan dagoen ureztatzeko sistema askotan hondatuta dagoelako. Zuhaitzak mantenduko dira, baina gainontzekoa baldosekin estaliko da.

Aldi berean, oinezkoek kaleak gurutzatzeko erabiltzen diren hiru zebraide goratu berriro margotuko ditu Altsasuko Udalak, honakoak: Sakana Lanbide Heziketa institutuaren parean dagoena, San Joan kalearen mendebaldean dagoena (ura ez piltzeko neurriak ere hartuko ditu udalak) eta Zelandi eskola publikoaren parean dagoena. Horrekin batera, Altzania kalean, Erkuden kaleko bidegurutzetik gertu, egun dagoen zebraidea goratu eginen du udalak. Izan ere, mugikortasun murrizta duen aldamen batek gaztigatu du, gaur egun espaloia beheratua dagoela zebraidera jotzeko, baina maila jaitziera horrek berak gurpildun aulkian espaloian ibiltzea zailtzen du.

Azkenik, Zelandi eskola publikoak eskatuta, Zelai txiki kaletik pasatzen diren ibilgailuen abiadura moteltzeko konkor bat edo "mando-bizkar"-erako abiadura murriztaile bat jarriko du udalak. Lan horiek guztiek 84.018,46 euroko aurrekontua dute eta diruzaintzaren gerakinarekin ordainduko ditu udalak.

APARKALEKU BERRIA ETA ZOLATZE LANAK EGITERA UDALAK 167.175,44 EURO BIDERATUKO DITU

Herritik pasatzen den goi tentsioko linea kentzeko aukera

Herritik pasatzen den argindar linearen zatia lurperatzeko eskaera eginen dute udalak eta gobernuak

IRAÑETA

Nagusia eta Ardanzeta kaleen bidegurutzearren ondoan, 220 kV-ko goi tentsioko elektrizitate dorre bat dago. Argindar linea horrek beste hiru dorre ditu herri bertan, ekialdera bat eta

mendebaldera beste bi. Nafarroako Gobernuak teknikeri batek etxeetatik gertu lau dorre daudela ikusita, Irañetako Udalarik jakinarazi zion herri parean behintzat, argindar linea lurperatzeko eskaera egin zitekeela

Madriren. Udalak eta Nafarroako Gobernuak eskaera hori eginen dutela jakinarazi du Iñaki Arangoa Zia alkateak.

Bestetik, I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU enpresak Irañeta eta Uharteko Arakilen arteko 30 kV-eko linea zatia altuago joatea nahi du. Horretarako, dorre altuagoak jarri nahi ditu. Proiektuak baimen guztiak jasoak ditu eta lur desjabetzeak egin dira. Izan ere, dorrea zenbat eta altuago izan, orduan eta oinarri zabalagoa behar du.



Goi tentsioko argindar linea Irañeta erditik pasatzen da.



Ibai ertzeko harri lubeta mugitzean Kalamurtxein sortutako zartatuak. ETXARRIKO UDALA

Gobernuak bi zolatze lan besterik ez ditu lagunduko

Etxeberri iparraldean dagoen hiru kaleren bidegurutzea eta Etxarri Aranazko Kalamurtxei kalea dira

SAKANA

Nafarroako Gobernua zatika jakinarazten ari da Tokiko Inbertsio Planen ebazpena. Apirilaren 21ean sareak berritzeko eta zolaketa lanak egiteko ebazpenaren berri eman zuen. Sarerik gabeko zoladuraren eta zehar-bideen urbanizazioaren inguruko ebazpena maiatzaren 4ean egin zuen. Foru gobernuak 68 herriren artean zazpi milioi euro banatu ditu. Lanak 2023-2025 aldirako dira. Gobernuari erai-kin publikoei buruzko ebazpena ematea falta zaio. Eta udalek 2024an 2026-2028rako laguntzak eskatu beharko dituzte.

Sakanako toki erakundeek ez dute zeharbideen urbanizaziorako eskaerarik egin, bai, ordea, zolatze lanak egiteko. Ibarretik egindako hamaika eskaeretatik bi besterik ez ditu onartu Nafarroako Gobernuak. Batetik, **Etxeberriko** Kontzejuak Santa Maria, ur biltegirako eta Aizkibelgo bideak elkartzen diren tokiko zorua berritzeko dirulaguntza jasoko du. Lanen aurrekontua 19.508,89 eurokoa da. Lanak 2025ean egingen dira. Bestetik, **Etxarri Aranazko** Udalak Kalamurtxei kaleko zoruko zartadurak konponduko ditu, hari eusten dion harri lubeta mugitu baita. Lanen aurrekontua 51.722,76 eurokoa da. Lanak aurten hasi eta heldu den urtean bukatu beharko dira.

Erreserban

Toki erakundeek aurkeztutako 197 eskaera erreserban utzi di-

tuzte. Haietako lau ibarrekoak dira. Lortutako puntuazioaren arabera, aurrena **Etxeberriko** Kontzejuaren hilerrirako bidearen zati baten konponketarako dirulaguntza eskaera dago. Lanak 31.212,43 euroko aurrekontua du. **Uharte Arakilgo** Udalak, berriz, Amurgingo bidea eta Txaroenea eta Santusenea luzapenak konpondu nahi lituzke eta, horretarako, 331.110,15 euroko aurrekontua duen proiektua ondu du. **Egiarretako** Kontzejuak, berriz, San Anton karrikako 7. zenbakitik 11 bis B zenbakira arteko zorua berritu nahi du. Azkenik, **Hiriberri Arakilen** Zubiko Bidea eta Larrainak kaleetako zoruaren zatiak berritu nahi lituzkete. Horretarako, 49.480,12 euroko inbertsioa aurreikusituz dute.

Atzera botatakoak

Gobernuak hainbat arrazoiengatik ibarreko bost lan proposamen ez ditu onartu. Haietako bat da **Hiriberri Arakilgo** ibai gaineko zubia konpontzeko eskaera. **Irurtzungo** Udalarari atzera bota diote Bi Ahizpe kaleko pabimentazioa berritzeko eskaera. **Lizarragabengoan**, berriz, bi kale zoladura berririk gabe eta espaloi batzuk berritu gabe geldituko dira. **Olatzagutiko** Udalaren Vicente Argomaniz plazako zorua berritzeko dirulaguntza eskaerak beste baterako itxaron beharko du. Azkenik, **Uharte Arakilgo** Udalak ezingo du, momentuz, hilerrirako bideko zorua konpondu.



Utzubar EKO Gunean jarritako yurtak 39 metro karratuko azalera du. HONDAKIN ZERBITZUA

Yurta bat jarri dute Utzubar Eko Gunean

Sakanako berrerabilpen gela izateko sortu du Hondakin Zerbitzuak. Jasotzen dituen eta egoera onean, berrerabiltzeko moduan dauden objektuak han jasoko dituzte eta sakandarren esku utzi

SAKANA

Dagoeneko eskaintzen duen zerbitzu bati Utzubar EKO Gunean espazio bat eman dio Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak. Utzubar EKO Gunean jasotako materialak berrerabili eta yurta bat eraiki dute. Hau da, nomadak diren Asiako herrien tradiziozko etxebizitza, borobila eta gela bakarrekoa. Egurrezko egitura du, artilea isolatzaile gisa erabiltzen du eta estalkia ere badu.

Olatz Garde Mazkiaranez hondakin teknikariak azaldu duenez, "joan zen urtean jasotako materialak birziklatuz eraiki dugu yurta. Zorua hezetasunetik isolatzeko pneumatikoak jarri ditugu, egurrekin sortu dugu egitura eta artilearekin isolatu dugu. Guztia olona batekin estali dugu".

Eraikin borobila Sakanako berrerabilpen gela da. Gardek argitu duenez, "Sakanako Mankomunitateak berrerabilpen programa bat jarri du martxan. Haren bidez zabortegian bukatzen

duen hondakin kopurua murriztu nahi dugu". Gaztigatu duenez, yurtak 21.062,15 euroko aurrekontua izan du, eta horietatik 14.145,43 euro Nafarroako Gobernuaren Hondakinen Funtsak ordaindu ditu.

Berrerabilpen gela

Utzubar EKO Guneko eraikin borobilak bere barruan "sentsibilizatzeko espazio bat izanen da", argitu du hondakin teknikariak. Horrekin batera "berrerabiltzeko objektuak aurkezteko erabiliko dugu yurta". Gardek azaldu duenez, haren barruan objektuak hainbat kategoriatan sailkatuta aurkeztuko dituzte: eskulanetarako eta bulego materiala, sukaldeko tresneria eta

**MATERIALAK DOAN
ESKURATZEKO
AUKERA ESKAINTZEN
DU; HILABETERO
ALDATZEN DIRA**

beirateria, altzariak, ehungintza, jokoak eta jostailuak, dekorazioa eta liburuak.

Teknikariak jakinarazi duenez, "zazpi motatako material horiek doan eskaintzen dizkiegu sakandarrei eta ibarreko elkarte eta ikastetxei. Objektuak hilabete batez egonen dira yurtan. Behin denbora hori pasata, berrerabili ez diren materialak Emausko Trapuketariei emanen dizkiegu, haiek kudeatu ditzaten". Aipatu yurtarik edo berrerabilpen gela gabe ere aurretik horretan esperientzia bazuen Hondakin Zerbitzuak. Izan ere, orain arte jasotako pintura poteak, erabilgarri bazeuden, gorde egiten zituzten eta behar zutenek eramateko aukera zuten.

Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuaren eraikin berria astelehenetik ostiralera (jai egunetan izan ezik) zabalik egonen da, 09:00etatik 14:30era. Hara hurbiltzen denak bertan opatuko ditu zerbitzuko hezitzaileak, harrera egiteko prest.



Altsasun egindako autobus sorta. SUNSUNDEGUI

Sunsundeguiak Volvoren goi mailako autobusak egingen ditu

Aurreikuspenen arabera, 2024aren hasieran hasiko dira ekoizten; lehen ereduak 2025ean jarriko da merkatuan

ALTSASU

Udaberri hasieran Volvo enpresak jakinarazi zuen bere karrozatzeko lantegia itxi eta Europako autobusak osorik ekoizteari utziko ziola. Suediako enpresaren Europako negozio eredu berria honakoa: Volvok autobusen bostidoreak edo txasisak ekoiztuko ditu eta karrozatzen duten kanpo enpresa batzuk bukatuko dituzte autobusak. Eredu berriarekin Volvok bere bezeroei autobus eta goi mailako autobusen aukera zabala eskaini nahi die.

Norabide horretan suediarrek itxi duten bigarren hitzarmena da Sunsundegirena. Bi enpresek Asmo Gutuna sinatu dute Sunsundegui karrozeria duten autobusak ekoizteko Volvo 9700 eta 9900 txasisetan. Dan Pettersson, Volvo Buseseko presidenteorde seniorrak esan duenez, "Sunsundegui kolaboratzaile baliotsua da eta, gure esperientziagatik, oso profesionala. Gaitasun bikainak dituen konpainia da, esaterako Europako merkatu askoren behar eta eskaerak egokitzea. Haien karrozeriak asko estimatzen dituzte gure bezeroek. Elkarrekin, ziur gaudete goi mailako autobus sorta bat garatuko dugula, industriari lidera izango dena".

Jose Ignacio Murillok, Sunsundegui zuzendari exekutiboak gaineratu duenez, "Volvo Busesekin lankidetzak hau hasteko desiratzen gaude. Ibilbide luzeko autobus iraunkorrak, seguruak eta eraginkorrak ekoizteko konpromisoa partekatzeak oinarri

sendoa sortzen du akordio honetarako".

Epeak

Akordioaren arabera, Altsasuko lantegian Volvoren 9700 eta 9900 txasis karrozatuko dira, goi mailako autobusak sortzeko. Bi txasis ereduak Volvok joan den urtean aurkeztu zituen eta markaren diesel bertsio berriena dira. Bi aldeek adostutakoaren arabera, teknologia transferentziarako akordioa aurtengo bigarren hiruhilekoan sinatuko dute. Ondoren, Sunsundegui demo-ibilgailu bat eraikiko luke 2023ko hirugarren hiruhilekoan, eta hiru prototipo 2024ko lehen hiruhilekoan. Serieko ekoizpenari 2024ko maiatzan ekitea aurreikusten da. Volvoren azken belaunaldiko autobusak 2025ean iritsiko dira merkatura eta errepideetara.

Volvorekin lortutako akordioari esker, Sunsundegui bere egungo ekoizpen-ahalmena bikoiztu ahal izango du. Karrozatzeko fabrikak egunean bi autobus jarriko ditu 2025eko lehen hiruhilekoan, hau da, urtean 460 auto gehiago. Ondorioz, Volvoren eta beste bezero batzuen artean, Sunsundegui 800 auto izango lituzke urtean.

Horri aurre egiteko langile gehiago beharko dira: (urte akaberarako 281, 2027rako 700etik gora eta 2028an 737). Bestetik, langileen urteko lanaldia aste bat luzatu beharko litzateke eta enpresak 16 milioi euroko inbertsioa egin beharko luke.

Alokairuko etxeetarako izena eman behar da

Foru administrazioaren Nasuvinsa enpresa publikoaren etxebizitza eskatzaileen erroldan eman behar du izena haietako batean interesa duen pertsonak. Guztira hogeita bat etxebizitza dira eraikiko dituenak

ALTSASU

Altsasuko Udalak eta Nafarroako Gobernuaren Nasuvinsa enpresa publikoak sinatutako hitzarmenaren arabera, Uhaldera eta Amandrea kaleetan alokairurako 21 etxebizitza eraikiko dira. Alokairuko etxebizitzak izanen dira, bereziki 35 urtetik beherako gazteei zuzendutakoak, bai eta desgaitasuna edo bestelako gizarte premia dituzten pertsonen ere. Beti ere, lehentasuna izango dute Altsasun erroldatutako pertsonak.

Eraikiko diren 21 etxebizitzetako bat alokairu erregimenean eskuratu nahi dutenek Nasuvinsaren eskatzaileen erroldan izena eman beharko dute. Izen-ematea telematikoki egin daiteke www.nasuvinsa.es webgunearen bidez. Enpresa publikoak Iruñeko San Jorge etorbideko 8. zenbakian duen egoitzan ere eman daiteke izena, baina, horretarako, alde aurretik hitzor-



Udaleko eta gobernuko ordezkariak etxebizitzak eraikiko diren partzela aztertzen. ARTXIBOA

dua eskatu behar da aipatu webgunean.

Behin eskatzaileen erroldan izena eman ondoren, eskatzaileak bere lehentasunak aldatu edo datuak egunera ditzake, modu errazean eta berriro izenik eman

beharrik gabe, telematikoki (nortasun agiri elektronikorekin) www.vivienda.navarra.es webgunean sartuta, edo aurrez aurre sozietate publikoaren bulegoetan alde aurretik hitzordua hartuta.



Hemen dira ezquila errepikak

Eguerdian hasi eta ia ordu erdiko ezquila errepika egin zuten asteazkenean. Urteko estreinako errepika izan zen altsasuarrendako. Eliz dorreko ezkilak jotzen aritu ziren Asier Beramendi, Jesus Bengoetxea, Jesus Irisarri, Belen Rubio eta Jon Kepa Everts. Iñaki

Bengoetxea eta Felix Martinez ere aritzen dira langintza horretan. Guztien artean saiatuko dira maiatzaren 3tik irailaren 14ra bitarteko, gurutzetik gurutzera, 134 egunetan hutsik ez egiten, eguerdiko ezquila errepika izan dadin Altsasun.

FESTAK

ALTSASU ALDE ZAHARREKO FESTAK

MAIATZAK 5 Ostirala

19:00 Bertso pilota: Udaberriko emakumezkoen Ados pilotaren esku txapelketa, Burunda pilotalekuan.
21:30 Kontzertuak, AGAK antolatuta: GLI Ultimi, Aingura eta Diraki, gaztetxean.

MAIATZAK 6 Larunbata

12:00 ELE festa: Mintzodroma bertsolariekin. Ondoren, auzatea eta Panbika Lamur, Foru plazan (eguraldi txarrarekin lortia kultur gunean).
Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, AEK-ek eta Guaixe Fundazioak antolatuta.
11:30-14:30 Altsasuko Erraldioen konpartsa, Altsasuko eta Etxarri Aranazko gaiteroez lagunduta, Intxostiapuntatik Foru plazara.
13:00 Altsasu Kantuz taldea, Iñigo Aritza Ikastolak antolatuta, Zubeztia pareko txoznan.
14:30 Bazkaria, Zelandiko frontoian.
AGAK antolatuta.
17:00 Eztanda Txaranga.
AGAK antolatuta.
17:00-19:00 Ludoteka eta Gaztetxokoa plazara! Ginkana, tailerrak, jolasak..., Foru plazan (eguraldi txarrarekin Ludotekan).
18:30-20:00 Haurrentzako aurpegi margoketa, Iñigo Aritza Ikastolak

antolatuta, Zubeztia pareko txoznan.

19:00-21:00 Josketa, lenteria eta ehoziri ikastaroetako lanen erakusketa, Gure Etxean.

19:30-21:00 Benetan Zoro Sorotan Beleren omenezko taldearen kontzertua, Foru plazan.

22:00 Erromeria, gaztetxean.
AGAK antolatuta.

MAIATZAK 7 igandea

10:45 Altsasuko Udalbatzaren irteera, Altsasuko Txistulariak elkartearekin batera, Udaletxetik Otadiako Kristo Deuna basilizara.

10:30-14:30 Artisau azoka eta taloak, Foru plazan (eguraldi txarrarekin Burunda frontoian).

11:00-14:30 Josketa, lenteria eta ehoziri ikastaroetako lanen erakusketa, Gure etxean.

12:00 Lagun Onak elkarteak eskainitako hamaiketako.

13:30 Bildots zozketa, Foru plazan.

18:30-20:00 Haurrentzako aurpegi margoketa, Iñigo Aritza Ikastolak antolatuta, Zubeztia pareko txoznan.

19:00 Haize Berriak Bandaren Zarzuela plazan, Itsaso Loinaz sorpranoa eta Aitor Garitano tenorearekin, Foru plazan (eguraldi txarrarekin lortia kultur gunean).

19:00-21:00 Josketa, lenteria eta ehoziri ikastaroetako lanen erakusketa, Gure Etxean.



ARTXIBOA

ALTSASU Artisau azoka izanen da igandean 10:30etik aurrera.

Ehoziriak eta Lenteria erakustaldia; Amillano gaztak; Juan Manuel Herreroren buruhandiak; Alejandro Rellánen makuluak; Itziar Nazabalen ehun margoa; Ion Dufurrenaren kaiuak; Iruleak; Taila eskola; Asier Cresporen larrua; Susana Santanoren kakorratz lanak; Iñaki Villanuevaren zura-lanketa; Cañamares anaiak; Ramón Paniaguaren momotxorroak; Sua; Taloak; Marmitarturen kupelak; Jesus Mari Olmosen zura lanketa; Brun Forjak; Carmelo Llenaren pilotak, eta Álvaro Garcíaren zeramika.

Udaberri Torneoa Altsasun hasiko da

PILOTA Pilota eta bertsoa uztartzen dituen torneoa aurkeztu du emakume pilotariak biltzen dituen Ados enpresak. Pilotariak lau taldetan lehiatuko dira, eta talde bakoitzaren botilleroa bertsolari ezagun bat izango da. Gaur helduko da Altsasura

Asteazkenean aurkeztu zuten, Beasaingo Igartzako jauregian, Udaberri Torneoa. Emakume pilotariak biltzen dituen Ados Pilotak antolatu du, zenbait babesleekin batera, emakumezkoen pilota sustatzeko eta "gure kulturaren bi ardatz nagusi, pilota eta bertsolariak, batzeko", Beasaingo alkate Leire Artolak azaldu moduan.

Guztira hamabi pilotari lehiatuko dira, lau taldetan banatuta: Eguzkiloreak (Zabala, Ruiz de Larramendi eta Arrieta), Kukuprakak (Iturriaga, Agirre eta Orbegozo), Mitxoletak (Barrokal, Mujika eta Aldaregia) eta Bitxiloreak (Etxebeste, Etxekolonea eta Ruiz de Infante).

Talde bakoitzaren botilleroa, aldiz, bertsolari ezagun bat izango da. Anjel Mari Peñagarikano Eguzkiloreak taldekoa, Maialen Akizu Bitxiloreak taldekoa, Aitor Sarriegi Kukuprakak taldekoa, eta Nerea Elustondo Mitxoletak taldekoa.

Hasieran liga fasean talde guztiak elkarren kontra lehiatuko dira. Lau eta erdiko partida bat eta binakako partida bat jokatu-ko dira, eta bi puntu egongo dira jokoan. Sei jardunaldi izango dira guztira, maiatzean barna Altsasun, Itziarren, Azpeitian, Ataunen, Zubietan eta Zumaian



Aurkezpenean pilotariak eta botillero-bertsolariak bildu ziren. ADOS PILOTA

jokatuko direnak. Puntu gehien lortzen dituzten bi taldeek final handia Beasainen jokatuko dute, ekainaren 2an, 19:00etan.

Gaur, Altsasun, lehena

Udaberri Torneoa maiatzaren 5ean, ostirala, 19:00etan hasiko da, Altsasuko Burunda pilotalekuan. Eguzkiloreak taldeak (Zabala, Ruiz de Larramendi eta Arrieta), Angel Mari Peñagarikano bertsolaria botillero duela, Maialen Akizu bertsolariaren Bitxiloreak taldea (Etxebeste, Etxekolonea eta Ruiz de Infante)

izango du aurkari, lau eta erdian eta binaka. Peñagarikanok eta Akizuk bertsotan emango dituzte eman beharreko gomendio eta iradokizunak, bitxia suertatuko den torneoa.

Ziordian, emakumezkoen NFKPT

Nafarroako Foru Komunitatea Pilota Torneoa Ziordira iritsiko da gaur, ostirala, 19:00etan. Naia Zelaiak eta Uxue Lopezek Alaia Ruiz de Infante eta Edurne Carrertero izango dituzte aurkari, eta eliteetan Zabaletak eta Mendizabalek Etxegarai eta Capellan.

Laino artean, gustura

1.289 mendizalek osatu zuten Irurtzongo Iratxo elkarteak larunbatean antolatutako 32. Sakanako Ibilaldia-III. Ochoa de Olza Memoriala, lainopean. "Mendian ibiltzeko primerako eguraldia, baina gure paisai ederrak ez ikustea faltan bota dugu" aitortu zuten Iñaki Arkauz eta Igor Maiza sakandarrek. Iratxok martxaren balorazio positiboa egin du.



Peio Etxeberria ez da Joseba Ezkurdiak fio

PILOTA Buruz Burukoan finalerdietara sailkatzea dute jokoan Joseba Ezkurdiak eta Peio Etxeberriak larunbatean Labriten. Zenezkoaren ustetan aurreko jardunaldietan baino "askoz hobe" iritsiko da arbizuarra. Ezkurdia "gogotsu eta ilusioz" dago

Maider Betelu Ganboa ARBIZU
Buruz Buruko Txapelketako final laurdenetako ligaxkako azken jardunaldia jokatu da egunotan. B multzoan, Dario finalerdietarako sailkatuta dago, eta beste pilotaria Joseba Ezkurdiak eta Peio Etxeberriak larunbatean Labriten jokatu duten partidatik aterako da, Jaka aukerarik gabe baitago.

Sentsazio onak berreskuratzen
Joseba Ezkurdiak ezin izan du Buruz Buruko behar bezala prestatu. 18 egunez geldirik egon behar izan zuen, iskiotibialetan zuntz haustura izan eta gero. Buruz Buruko final laurdenetako ligaxkan Erik Jaka irabaztea lortu zuen, baina Darioren kontra ezin izan zuen. "Oso gaizki ikusi nuen neure burua, jokaldiak ez zitzaizkidan ateratzen eta lehiaketa erritmoa falta zitzaidan. Baina bizirik iritsi naiz ligaxkako azken jardunaldira, Peio Etxeberriaren kontra. Aurreko astean



Ezkurdiak eta P. Etxeberria. ARIZMENDI

entrenamendu ona egin nuen frontoian, eta gogotsu nago, ilusioz. Ongi ikusten dut neure burua" aitortu zuen material aukeraketan. Peio Etxeberria arerio gogorra izango da. "Fisikoki oso ongi ikusten dut. Defen-

tsan eroso dago, sufritzen ere badaki, eta disfrutatzen ari da" gaineratu zuen.

Peio Etxeberria Joseba Ezkurdiaren lagun mina da, eta Zenezkoak uste du Ezkurdiak aurrekoetara baino "askoz hobe" iritsi dela ligaxkako hirugarren jardunaldira. "Darioren kontra ez zuen bere bertsiorik onena eskaini, baina orduan baino askoz hobe dago orain". Horregatik, Etxeberria ez da fio. "Partida zaila izango da, eta guztia oso ongi egin beharko dut Ezkurdiak irabazi eta Buruz Buruko finalerdietara sailkatu nahi badut".

A multzoan Altuna dagoeneko finalerdietan dago, Elezkanok ez du sartzeko aukerarik eta finalerdietako beste pilotaria Lasok eta Elordik maiatzaren 12an Bilbon jokatu duten partidatik aterako da. Bestalde, Promozio Buruz Burukoan, Joanes Bakakoa finalerdietan dago, ostiralean Egiureni 22 eta 21 irabazi eta gero.



Juan Luis Maiza eta Peio Vergara, Munduko Duetloi Txapelketan. UTZITAKOIA

Juan Luis Maiza eta Peio Vergara, duatleta mundialak

DUATLOIA Ibizako Duetloi Mundialean euren adin tartean estatuko lehenak izan ziren bi sakandarrak

Maider Betelu Ganboa SAKANA
Asteburuan Munduko Duetloi Txapelketa jokatu zen Ibizako Santa Eulalia del Rion, hainbat kategoriatan eta modalitateetan. Bertan Sakana Triatloi Taldeko Juan Luis Maiza Begiristain eta Peio Vergara Garcia sakandarrak lehiatu ziren, Espainiako selekzioan. 2022ko irailean Bilbon jokatu zuen Europako Duetloi Txapelketan lortu zuten Mundialean lehiatzeko txartela. Aurretik, Espainiako Txapelketan lan bikaina egitetik zetozen biak. Europako Txapelketan, Juan Luis Maiza 55 eta 59 adin

tarteko Europako txapelduna izan zen, eta Peio Vergara 65 eta 69 adin tartean laugarrena.

Sasoi bikainean

Ibizako Mundialean 5 km korrika, 20 km bizikletan eta 2,5 km korrika egin behar izan zituzten, eta bi sakandarrak primeran aritu ziren. Juan Luis Maiza bosgarren sailkatu zen 55 eta 59 adin tarteko Mundialean eta espainiar estatuko lehena izan zen (59:11). Peio Vergara 18. sailkatu zen Mundialean 65 eta 69 adin tartean, espainiar estatuko lehena (1:10:45).



NAFARROAKO EUSKAL PILOTA FEDERAZIOA

Gure Pilota Nafarroako txapeldun

Nafarroako Kirol Jokoetako Paleta Gomako Hirugarren faseko finalean Etxarriko Gure Pilotako palistak izan ziren protagonistak. Kimuetan, G. Pilotako Sasiain-Aldasorok 18 eta 11 irabazi zieten Glaria-Baquerizo taldekideei. Haurretan, Campos-Garmendiak (G. Pilota)

25 eta 16 hartu zituzten mendean Erro-Zia (Añamendi). Kadeteen 1. mailan, G. Pilotako Lazkoz-Larrazak 25 eta 16 irabazi zituzten Orella-Erauskin taldekideak. Kadeteen 2. mailan Murugarren-Amadok (G. Pilota) 21 eta 25 galdu zuten Pedroarena-Zabalzaren kontra (Añamendi).



TXIRRINDULARIAK

Quesos Albeniz, hironaka

TXIRRINDULARITZA Aurrekoa asteburu borobila izan da Quesos Albeniz-Burundarendako. Juniorretan, Iker Gomezek dobletea egin zuen: Arantzazuko Igoera irabazi zuen larunbatean, eta Lacturale Trofeoa astelehenean. Eta kadeteetan, Ekain Imazek Lizarrako larunbateko lasterketa irabazi zuen. Burunda eta Aralar taldeetako gainontzeko txirrindulariak ere oso fin ibili dira.



Iker Mintegi Claver, Euskaldun Txapelketako maillot urdinarekin, maldan gora. LABORAL KUTXA

"Profesionaletara igotzea da asmoa, baina horrek ez nau urduri jartzen"

IKER MINTEGI CLAVER TXIRRINDULARIA

TXIRRINDULARITZA Laboral Kutxako altsasuarrak denboraldiko lehen garaipena lortu du, eta Euskaldun Txapelketa irabaztea da bere helburua

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

2023ko afizionatuen txirrindularitza denboraldia hasi zenetik, lehendabiziko postuetan ikusi dugu Laboral Kutxako Iker Mintegi txirrindulari altsasuarra. Ereñon hirugarren, Berriatuan bigarren, Unai Zubeldia taldekidearekin batera helmugara eskutik helduta sartuta, Markinan hirugarren, Gorlan bosgarren, Balenciaga Memorialean bigarren, Duranan laugarren... larunbatean Lazkaoko Proban garaipena lortu arte.

Denboraldiko lehen garaipena lortzearen presio edo arantza hori kendu al duzu Lazkaoko Proba irabazita?

Azkenean kontua hor aurrean egotea da. Garaipena lortu nahi nuen, argi eta garbi, baina ez

"ITURMENDIKO LASTERKETA BEREZIA IZANGO DA, ETXEKO DELAKO ETA IAZ IRABAZI NUELAKO"

nuen garaipena lortzearen presio hori sentitzen. Hor aurrean egotean, azkenean iritsiko zen. Irabaztea beti da polita, baina garrantzitsuagoa da beti hor egotea, ez egun batean irabaztea eta gero desagertzea.

Garaipen polita izan zen Lazkaoko. Lazkaomendin jo zenuen eraso, helmugara bakarrik helduz.

Hasieran ihesaldi txiki bat sortu zen eta taldekide bat sartu genuen bertan. Diego Uriartek (Finisher) eraso jo eta 2 minutuko aldea atera zuen. Gure taldeak seku-la-

ko lana egin zuen bera harrapatzeko, eta Gaintzako gainean nire momentua iritsi zen. Hasieran hiru txirrindularik egin genuen aurre, jaitsieran taldetxo bat elkartu ginen eta Lazkaomendin eraso jo nuen. Zorionez, helmugara bakarrik sartu eta garaipena iritsi zen.

Zer sentitzen da?

Poza, lana ongi egin izanaren emaitza edo sentsazioa. Taldeak lan bikaina egin zuen, eta lan horri bukaera eman ahal izatea polita izan zen.

Laboral Kutxan bikain zabilzate. Garaipen ederrak lortu dituzue eta zu Euskaldun Txapelketako liderra zara. Gorenean zaudete.

Bai. Nire ustez oso talde indartsua dugu, bereziki txirrindulari asko gaudelako garaipena lortzeko lehia horretan. Horrek asko laguntzen du. Esaterako, Santikutzen hamabosteko talde batean gu bost ginen, eta gure aukera jokatu ahal izan genuen talde gisa. Gutako batek jo zuen eraso, gero besteak, gero besteak... azkenean beste batek aurrera egin arte. Oso momentu onean gaude, aprobetxatu beharrekoa.

Euskaldun Txapelketa irabaztea da zure helburua. Zazpi lasterketa gelditzen dira, tartean igandean Natxituan jokatu dena eta maiatzaren 14ko Iturmendikoa.

Euskaldun Txapelketa irabaztea da orain nire erronka. Txapelketa ongi bideratua dago -Mintegik 95 puntu ditu eta Rural Kutxa-Aleako Julen Arriola bi-

garrenak 84 puntu-, eta horretan gaude. Gelditzen diren zazpi probatan puntuak lortzen baditut lortuko nuke. Bestelako probak ahaztu gabe.

Fisikoki nola sentitzen zara?

Oso ongi, sasoi betean, baina ikusiko dugu, errepidean edo zerga daitekeelako. Bidasoako Itzulian -atzo, osteguna, hasi zen eta larunbatean despedituko da-, maila altuan egotea da asmoa, taldeak sailkapen orokorragatik borrokatzea, eta igandean Natxituan ere ongi ibiltzea.

Beste erronka berezirik al duzu?

Lasterketa guztiak dira garrantzitsuak, guztiak dira irabazteko edo lehian egoteko aukerak. Agian Iturmendikoa berezia da, etxekoa delako eta joan zen urtean irabazi nuelako.

Joan zen urtean Euskaltel Euskadi talde profesionalarekin aritu zinen stagiare edo laguntzaile, Italian. Aurten ere aukera izango al duzu?

Ez dut ideiarik. Unean unekoan nago zentratuta, eta etortzen bada, etorriko da. Afizionatuetan zure hirugarren denboraldia da. Profesionaletara saltoa ematea gertu ikusten duzu egiten ari zaren lan bikainari esker? Garbi dago asmoa hori dela, baina horrek ez nau urduri jartzen. Nire ustez, urte erregular bat izatearen emaitza izan beharko litzaiteke profesionaletara igotzea, eta uste dut horrela jarraituz gero, aukera iritsi daitekeela. Baina ez nago urduri. Orain arte bezala jarraituko dut.



Nahia Imaz, ezkerretik hasita bigarrena, Vueltako aurkezpenean. LA VUELTA

Nahia Imaz Espainiako Vueltan

Nahia Imaz Perez altsasuarra joan zen urtean jubenila zen, Lacturale Ermitagañan. Urte gogorra izan zuen, lesio bat tarteko. Aurten Sopela Team taldean mustu da afizionatuen mailan eta debut ikaragarria izan du, Espainiako Vueltan baitago Allison Mrugal liderra laguntzen.



Unai Mundiñano entrenatzailea –goian, ezkerretik hasita bigarren–, taldekideekin Lauko Finalera sailkatu izana ospatzen. CBASK

Narum CBASK, finalerako prest

SASKIBALOIA Unai Mundiñano Arana entrenatzaileak mustutze bikaina izan du, Narum CBASK taldea Bigarren Maila Interautonomikoko Final Laukoetarako sailkatu baita. Finalerdietan Logrobasket izango du aurkari, maiatzaren 13an

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU Unai Mundiñano Arana arbi-zuarrak aurten hartu zuen Bigarren Maila Interautonomikoko Narum CBASK saskibaloitza taldea entrenatzeko ardura, Iosu Mendiola entrenatzaileak emakumezkoen talde senior sortu berria entrenatzeko ardura hartu zuenean. "Bigarren Maila Interautonomikoan entrenatzaile gabe geratu ginenez, nik neuk hartu nuen taldearen ardura", azaldu du Mundiñanok. Ordura arte Narum CBASK-eko jokalaria zen. "Alde batetik, faltan botatzen dut jokatzeko, baina talde txikiak entrenatzen bospasei urte neramatzan eta argi nuen senior taldearen entrenatzaile izan nahi nuela. Agian behar baino lehenago iritsi da, baina oso gustura nago".

Iosu Mendiolaren tokia hartzeak izan du berea. "Azkenean,

beti duzu urduritasun puntu hori. Ez da erraza taldekide eta lagun izatetik entrenatzaile izatera pasatzeko trantsizio hori. Lehendabiziko partidetan urduri nengoan. Baina jokalariek ere asko lagundu didate eta esperientzia ona izan da".

Kopuru justua

Mundiñanoren mustutzea "espero baino hobea izan da. Urte nahiko zaila izan da, talde nahiko motza izan dugulako". Narum CBASK-ek 11 jokalarik ditu, kopuru eskasa. "Entrenamendu askotan sei-zazpi jokalarik zeuden,

"LESIONATUAK OSATU DIRA. TALDE GUZTIA GAUDE MARTXAN, ETA NABARITZEN DA"

UNAI MUNDIÑANO ARANA

hiruk txandaka lan egiten dutelako eta beste batek kanpoan ikasten duelako. Ez da erraza izan. Egokiena da entrenamenduetan gutxienez hamar jokalarik egotea, 5x5 jokatzeko ziurtatzen duzulako. Baina ahal izan duguna egin dugu, eta gora behera horiek kenduta urte oso ona izan da", ondorioztatu du. 2022ko taldeko bi jokalarik baja eman zuten, Ander Gabirondo taldeko kapitainak, eta Mundiñanok berak. "Taldea nahiko gaztea dugu, jokalarik zaharrenek 27 urte ditu. Gutxika jokalarik zaharrenek gazteei tokia utzi diegu. Bestalde, joan zen urtean lesionatuta egon zen Unax Ijurra jokalaria berreskuratu dugu. Bigarren taldeko entrenatzaileak, Imanol Puertak, gurekin jokatu du eta asko lagundu digu. Eta Iñigo Zabalok entrenamenduetan lagundu digu" gaineratu du.

Narum CBASK

- 4 Jorge Misiego
 - 6 Ander Hormeño
 - 8 Imanol Puerta
 - 9 Aimar Azpiroz
 - 10 Jon Otermin
 - 11 Aitor Calleiras
 - 15 Unax Ijurra
 - 17 Mohamed Aboufaris
 - 18 Pello Iraola
 - 19 Unai Flores
 - 23 Iker Claver
- Entrenatzailea:** Unai Mundiñano

Helburua: play-offak

Mugak izanda ere, 2022/2023 denboraldiko helburua, hasieratik, Play-offetara sailkatzea zen. Hau da, lehen zortzi postuetan sailkatzea, Final Laukoetarako sailkapen fasean sailkatzea. "Gabonak arte bi partida galdu genituen bakarrik, eta topera geunden. Baina gero lesio dezente izan genituen, eta urtarileko aldapa otsailera arte luzatu zitzaigun: bi hilabete horietan partida guztiak galdu genituen. Gogorra izan zen, zailak sortu ziren, baina buelta eman genion eta sekulako saria lortu dugu: Lauko Finalera sailkatzea", dio Mundiñanok.

Partidarik onena

Ligan seigarren sailkatu zenez, Narum CBASK hirugarren sailkatu zen Humiclimaren kontra jokatu behar izan zuen Final Laukoetarako sailkapen fasea. "Ez genuen Humiclima arerio izatea nahi, oso jokalarik onak dituelako. Baina hala suertatu zen". Joaneko partidetan, Berriozarren, Narum CBASK-ek 78 eta 89 irabaztea gaitzeko izan zen. "Urteko partidarik onena jokatu genuen, jokalarik guztiek oso ongi jokatu baitzuten. Orain talde osoa gaudu martxan, jokalarik guztiak osatu dira, eta pieza guztiak batuta dituzunean, askoz hobeki jokatzeko duzu". Zelandiko itzulerako partida estuan, hiru puntuetatik gailendu zen Narum CBASK, 67 eta 64, eta Lauko Finalerako sailkatu zen. Sekulako giroa egon zen Zelandian, eta ederki ospatu zuten.

Teresianas kiroldegian

Navasket, ENERparking Basket Navarra, Logrobasket eta Narum CBASK sailkatu dira Final Laukoetarako. Navasket taldearen

egoitzan jokatu da, Teresianas kiroldegian. "Sailkatu diren taldeei proposatzen zaie ea norbaitek Lauko Finalak antolatu nahi ote duen. Guk aurten ez genuen nahi izan, etxean jokatzeko urduriago aritzen garelako. Humiclimaren kontrako Zelandiko partidetan lehen zatian urduri samar egon ginen. Talde gaztea gara eta nahiago izan dugu Lauko Finala kanpoan jokatu eta presio gutxiagorekin joatea".

Maiatzaren 13an Lauko Finalerako finalerdiak jokatu dira. Narum CBASK-ek Logrobasket taldea izango du aurkari, 20:30ean. "Logroño taldea da, gure taldearen nahiko antzekoa. Talde nahiko orekatua dute: jokalarik azkarak, jokalarik altuak, eta jaurtitzaileak. Gure estiloko taldea da" dio Mundiñanok. Horregatik, lehia estua espero da. "Uste dut borrokatzeko eta irabazteko moduan egon gaitzekela. Gure kartekin ongi jokatzeko badugu, horretarako aukera izango dugu".

Beste finalerdia ENERparking Basket Navarrak eta Navasketek jokatu dute, maiatzaren 13an, 18:15ean. Bi taldeak onak dira. "Navasket talde gogorra da, baina euren kontra Iruñean gailendu ginen. Beraz, finalerako iritsiz gero euren kontra finala jokatu beharko bagenu, zergatik ez guk irabazi?" dio Mundiñanok.

Motibazioa

Talde indartsuen kontra aritzeak "motibazio puntu hori ematen dizu, intentsitatea. Gure arazorik handiena geure burua da. Askotan begizta edo bukletean sartzen zara, eta egoera horietan burua altxatzea kostatzen zaigu. Sailkapenean gu baino beherago zeuden taldeen kontra irabaztea kosta izan zaigu. Baina hoberenen kontra beti duzu motibazio estera hori".

Bi finalerdietako irabazleek Lauko Finalerako final handia maiatzaren 14an jokatu dute, 12:30ean. Aurretik, 10:15ean, hirugarren eta laugarren postuak erabakiko dira.

Narum CBASK Lauko Finala prestatzen dabil buru-belarri. "Taldea amateur bat gara, hori argi dugu. Hemen ez du inork saskibaloitik bizi behar. Familia txiki bat gara, taldekideak eta lagunak. Eta horrek egiten gaitu berezi". Gogotsu daude. "Lauko Finalerako kopa irabazi nahi gogoket, ilusioa dugu".

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO

LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 5

IRURTZUN Dokumentalaren emanaldia.

Inasa. Irurtzango langileon indarra eta arnasa dokumentalaren aurkezpena.
18:00etan eta 19:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Gazte agenda.

Bingo musikatua.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

LAKUNTZA Kontzertua.

Alfredo eta Iker Piedrafitaren kontzertu akustikoa.
18:30ean, kultur etxean.

LARUNBATA 6

UHARTE ARAKIL Festa.

Sakanako Herri Eskolen Festa. Topaketa, ordubete inguruko paseoa eta bidean erronka kooperatiboko ariketak. Bukatzeko, auzatea: txistorra, gazta eta senideek egindako postreak.
10:30etik aurrera, Itxesi gunean.

UNANU Ipuin kontalaria.

Ameli ipuin musikatuaren saioa, Ergoiena Bizirik egitasmoaren barruan.

18:00etan, Denok bat elkartean.

IRURTZUN Bertsolaritza.

Aixita III. Bertso Sariketa. Bertsolariak: Aitor Etxebarriazarraga, Amaia Iturriotz, Maddi Sarasua, Peru Abarrategi, Egoitz Gorosterrazu eta Sarai Robles. Gai jartzaila: Zigor Gartzia 'Zian'.

18:30ean, kanporaketa; ondoren, buruz burukoa, kultur etxean.

ASTELEHENA 8

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ASTEAZKENA 10

UHARTE ARAKIL Aurkezpena.

Nafarroako Trenaren Aldeko plataformaren tren alternatibaren proiektuaren aurkezpena.
19:00etan, udaletxean.

ETXARRI ARANATZ Mahai ingurua.

Iñaki Pikabea *Piti* eta Jokin Urain *Kixkur* preso ohien eta Ateramiñe elkarteko kideen *Sorkuntza eta espetxea* mahai ingurua, Pello Mariñelarena Imaz 30 urte gogoan jardunaldiaren barruan.
19:00etan, kultur etxean.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Los tres mosqueteros: Dartagnan gaurkotasunezko filmaren emanaldia

Ostirala 5 19:00
Igandea 7 19:30

Los buenos modales gaurkotasunezko filmaren emanaldia

Osteguna 11 19:00
Ostirala 12 19:00

OSTEGUNA 11

IRURTZUN Solasaldia.

Miñan liburuaren inguruko solasaldia Amets Arzallusekin, Sakanako Mankomunitateak antolatuta, Pikuxar euskal txokoaren eta Aizpea euskara taldearen laguntzarekin.
19:00etan, Pikuxar euskal txokoan.

OSTIRALA 12

ALTSASU Gala.

Altsasuko 10. Gozamenez film laburren lehiaketaren Goza-gala sari banaketa.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

BAKAIKU Aurkezpena.

Nafarroako Trenaren Aldeko plataformaren tren alternatibaren proiektuaren aurkezpena.
18:30ean, udaletxean.




ALTSASU Liburuaren astea: Saharako liburutegiak ezagutu nahi? Bubisher proiektuaren erakusketa.
Maiatzaren 15era. Liburutegian.



UTZITAKOIA

ETXARRI ARANATZ Iñaki Pikabea Piti preso ohiaren Ekinaren Ekinez artelanen erakusketa, Pello Mariñelarena 30 urte gogoan, Sorkuntza eta Espetxea programaren barruan.
Maiatzaren 5ean, 6an, 7an eta 12an. Ostiraletan 18:00etatik 20:00etara eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Kultur etxean.



ALTSASU Koldo Aranz tailerra: 30 urtez artearen magiapean erakusketa. Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara, larunbatean ikuskizuna hasi baino urte bat lehenago eta igandean 18:30etik 19:30era. Maiatzaren 21era arte. Iortia kultur gunearen erakusketa aretoan.

ZORION AGURRAK




Ainetz Lazkoz Ginea
Zorionak ederra, maiatzaren 4an 13 urte bete dituzu. Muxu pila bat aitaxo, Haitz, Lizarragakuek eta amiñen partez.



Erviti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es



LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Etxe zaharren berriztatze eta birgaitzea

ESKELA



Juana Mari San Martin Astiz

Ez dugu inoiz zure irribarrea ahaztuko

Gasteizko eta Altsasuko familia

ESKELA



Joxe Luis Agirre Egaña

'Ezkerra'

Ahazten ez dena ez da sekula hilko

Arbizuko ehiztari elkarte

Arbizun, 2023ko apirilaren 28an

ESKELA



Valentin Lizarraga Liciaga

Iruñean hil zen, 2023ko apirilaren 29an, 85 urte zituela, elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondoren

—Goian bego—

Beti gure gogoan

Zure familia

Etxarri Aranatz, 2023ko apirilaren 30a

OROIGARRIA



Mari Bego Zelaia Zufiaurre

II. urteurrena

Gure bihotzetan izango zara beti

Etxekoak

Altsasu

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

ALOKAGAI

Altsasun Coworking bulegoa autonomo eta urruneko langileentzat: Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatzen bulegoa; Wifia, inprimagailua, berogailua, komuna eta *officea* ditugu. Aukera paregabea! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

LAN ESKAINTZA

Irurtzango Pikuxar tabernan zerbitzari eta sukaldari lan polita: Asteburuetan eta udan lan egiteko gehien bat. Esperientzia baloratzen da eta euskara ezinbestekoa da. Curriculumak jasotzen ditugu tabernan utziz edo pikutaberna@gmail.com helbide elektronikora bidalita.

Altsasuko Udalak 8 langabe kontratatzeko hautapena prozesua hasi du: Urte erdiz lanaldi osoan lan egingo dute, lau lorezaintza ofizial lanetan eta besteak zerbitzu anizteta peoi lanetan. Deialdian interesa dutenek maiatzaren 15era arteko epea dute Nafar Lansareren Altsasuko bulegoan izena emateko. Informazio gehiago www.altsasu.net web orrian.

Mank-eko kudeatzailea oposizio-lehiaketa bidez ordezkatzeko prozesua: Sakanako Mankomunitateak hautapen prozesua zabaldu du kudeatzailea ordezkatzeko, bertan parte hartu nahi dutenek eskabidea aurkeztu beharko dute Sakanako Mankomunitatean maiatzaren 11ko 14:30ak baino lehen. Goi mailako unibertsitate titulua, B mailako gidabaimena eta EGA edo balio-kidea izatea derrigorrezkoak dira.

IKASTAROA

Boluntariotza formakuntza Altsasuko Biak baten eskutik: Aniztasun

funzionala duten pertsonen aisialdian laguntzeko. Ikastaroa maiatzaren 13an, larunbatean, 10:00etatik 12:00etara egingo da Biak Baten Altsasuko egoitzan. Informazioa eta izen emateak 646 123 768 telefonoan edo formacion.biakbat@gmail.com helbide elektronikora idatziz.

LEHIAKETA

Txantxari ludotekarako logotipo lehiaketa: Lehen Hezkuntzako Altsasuko ikastetxeetako haurrei zuzenduta dago eta lehiaketa honen bidez Altsasuko Txantxari ludotekaren logotipoa aukeratu da. Lanak A4 formatu bertikalean egin beharko dira, erabilitako materiala librea eta derri gorrez agertu beharreko testua TXANTXARI LUDOTEKA izango da. Lanak ludotekan aurkeztu behar dira maiatzaren 25a baino lehen eta lanarekin batera gutun-azal itxi batean izen-abizenak, adina, helbidea, telefonoa, eskolatu dagoen ikastetxea eta ikasmaila adierazten duen informazioa aurkeztu behar da. Saria marrazketarako materiala eta 60 euro metalikoan. Informazio gehiago ludoteka@altsasu.net - 948 467 471.

ZirTok umore errimatuaren lehiaketa: Bertsozale Elkarteak antolatuta, TikTok sare sozialean euskarazko umore errimatu sustatu asmoz sortutako bideo motz lehiaketa, baita zirtoa (erantzun errimatu barragarria) eta zirtolariak ezagutarazteko asmoz ere. 13 urtetik gorako edozeinek har dezake parte, nahi adina bideo igota, betiere ZirTok kontua etiketatuta. Hiru sari egingo dira 500 euroko bat eta 250 euroko bi. Apirilaren 1etik maiatzaren 31ra bitarte egingo da parte hartzeko aukera TikTok sare sozialean. Informazio gehiago eta

eredu ezberdinen bideoak www.zirtok.eus web orrian edo TikTokeko ZirTok kontuan.

OHARRAK

Etxarri Aranatz egur loteak eskatzeko epea zabalik: Epaizta kopuruak jakiteko izena eman behar da maiatzaren 18a baino lehen, www.etxarriaranatz.eus web orrian dagoen eskaera orria bete behar da eta ordainketa-ordenagiria aurkeztu, epaizta bakoitzeko 44 euro ordaindu behar da. Epaizten esleipena zozketa bidez eginen du udalak eta egurra saltzea debekatua dagoela gogorarazi dute.

Altsasuko musika eta dantza eskolan izena emateko epea zabalik: Izena emateko bi modu egingo dira www.altsasu.eus weborriaren bitartez edo eskolako idazkaritzan (astelehenetik ostegunera 15:30etik 20:00etara eta ostiralean 10:00etatik 13:00etara). Informazio gehiago <https://altsasumusikadantzae.wixsite.com/eusk> loturan, musikaeskola@altsasu.net helbidera idatziz edo 948 564 581 telefonora deituz.

Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda martxan: Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazio-ko zabalpen-zerrenda bat sortuko du. Berdintasun Zerbitzuetik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen-zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu Whatsapp-eko mezu bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 32 85 93 iragarki@guaixe.eus www.iragarkilaburak.eus

JAIOTZAK

- **Oihan Albisu Mendinueta**, apirilaren 19an Arbizun
- **Alaitz Gastaminza Chong**, apirilaren 27an Altsasun
- **Sami Ilyan Mokhsi**, apirilaren 30ean Lakuntzan

HERIOTZAK

- **Francisca Goikoetxea Goikoetxea**, apirilaren 28an Iturmendin
- **Jose Luis Agirre Egaña**, apirilaren 28an Arbizun
- **Maria Jesus Razkin Maiza**, apirilaren 28an Arbizun
- **Valentin Lizarraga Lizeaga**, apirilaren 29an hil zen Etxarri Aranatz

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

Nabarmendu zure iragarkia

Modulo handia:
24,20 euro
948 564 275

Nabarmendu zure iragarkia

Modulo txikia:
14,52 euro
948 564 275



Izarra, Nafarroako tanatorioa

Gure lurra, gure jendea, gure sustraia

BEILATOKIAK

ALTSASU
Santa Cruz, 6

ETXARRI-ARANATZ
Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

📍 @Grupolrache

📱 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

Saharako liburutegiak

Bubisher elkarteak Saharako liburutegiak sustatu ditu eta Kabiak elkarte nafarrak herrialdean lan hori eta Saharako kultura ezagutaraztea du helburu. Altsasuko liburutegian 'Saharako liburutegiak ezagutu nahi?' erakusketa ikus daiteke

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna izan zen, eta Altsasuko Liburutegian aste osoko egitaraua prestatu zuten. Tartean Izaskun Etxeberria Zufiaurre idazle altsasuarraren *Esaten ez den guztia* liburuaren inguruko solasaldia, LiteARTE jaialdia eta haurrentako tailerrak izan ziren; papera birziklitzeko lehena eta ipuin interaktibo bat sortzeko bigarrena. Altsasuko Liburuaren Astearen barruan ere Saharako liburutegiei garrantzia eman zieten eta maiatzaren 15era arte liburutegiko leihoetan Saharako kanpamentuetako liburutegiei buruzko erakusketa ikus daiteke. Kabiak elkartearen *kamishibai* ipuin kontaketa eta Saharan egindako lanaren inguruko hitzaldiak ere izan ziren.

Kabia elkarte nafarra 2017an sortu zen Bubisher elkarterako egindako lan boluntario bat egin ondoren. "Zertan zetzan lan hori? Saharako kanpamentuetan dauden liburutegietako liburuzainei *kamishibairi* buruzko formakuntza eman genien", azaldu dute Kabiak elkartetik. Nafarroara itzultzean erabaki zuten Bubisher proiektuari laguntzeko elkarte bat sortzea eta "batekin eta beste batekin hitz egin ondoren", Kabiak elkarte sortu zuten. "Bubisher basamortuan euria egin ondoren ikus daitekeen txori txiki bat da, eta, jakina, txoriek kabiak behar dituzte". Kanpamentuetan liburutegiei kabiak deitzen dietela azaldu dute.

Bubisher elkarte 2008an sortu zuten gaztelaniazko irakaskuntza, irakurzaletasuna eta kulturartekotasuna bultzatzeko asmoz. Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren bigarren hizkuntza ofiziala da gaz-

telania. "Ideia Pontevedrako eskola batean jaio zen. Saharan bizi duten egoera ezagutu ondoren eskola hartako ikasleek liburuak eta bibliobus bat lortzeko kanpaina abian jarri zuten, baita lortu ere. Idazle batzuek ere laguntza handia eman zuten kanpainan". Horrela sortu zen Bubisher elkarte, eta Asociación Escritores por el Sáhara-Bubisher izena jarri zioten.

"Gaur egun, Saharan bost bibliobus daude eta bost liburutegi". Bibliobusak ikastetxeetatik mugitzen dira, liburuak maileguan ematen dituzte eta irakurketa sustatzeko jarduerak egiten dituzte, baita animazio saioak ere. "Horiek dira liburuzainek egiten dituztenak". Haurrentako zerbitzua gaztelaniaz eta arabiarrez da, eta helburendako arabieraz, batez ere.

Sahara

Saharako errefuxiatuen kanpalekua Tinduf izeneko hiri argeliarraren ondoan dago, basamortu latz batean, hammadan, azaldu dute Kabiak elkartetik. "Kanpamentu handia da eta bost *wilayatan* edo probintzian banatuta dago: Aaiun, Smara, Aurserd, Djala eta Bujador". *Wilaya* horiek dairetan edo udalengan banatzen dira eta daire horiek auzotan. Liburutegiak bost wilayatan kokatuta daude: Smara, Aursed, Bojador, Djala eta Aaiun".

Bubisher proiektua "guztiz sahararra da" eta bertako lan-

"LIBURUTEGI HAUEK LAN HANDIA EGITEN DUTE; BERTAKO KULTUR GUNEAK DIRA"

gile guztiak sahararrak dira: liburuzainak, zaintzaileak, txoferrak, mantenimendu langileak eta boluntarioak. Elkarteko presidentea ere sahararra dela esan dute elkartetik. "Espainiako estatutik laguntza jasotzen dute: materiala, soldadak, formakuntza, boluntariotza, dirua liburutegiak eraikitzeko, bibliobusak eta haien konpontze lanak...". Kabiak elkarteak Nafarroan Bubisher proiektua ezagutaraztea eta proiektua laguntzea du helburu.

"Nafarroako kultura eta Saharako kulturaren arteko zubiak eraikitzea, betiere elkartasuna berdinen artekoa izanda eta karitatetik urrun. Hori lortzeko kultura tresna hobereena dela aintzat hartzen dugu". Bestetik, elkartearen beste xede bat herrialdean Saharako kultura ezagutaraztea da, haien ipuinak eta elezaharrak *kamishibai* bihurtzen, "Iturrarako institutuko eta Arte eskolako ikasleek lan horretan asko lagundu dute".

Literatura

"Liburutegi hauek lan handia egiten dute, ez bakarrik irakurzaletasuna lantzen eta bultzatzen, baita kultura sustatzen ere". Liburutegiak *wilaya* bakoitzaren kultur guneak bihurtu dira: zinea, osasun eta zientzia tailerrak, irakurle klubak, emakumearen eguna, poesia... "Liburutegietan lorategiak landatu dituzte eta lehen metaforikoki esaten genuena egia bihurtu da: liburutegiak kanpamentuko oasiak dira". Pandemia eta gerra garaian "heziketa emozionala" lantzeko tresna bihurtu dira liburutegiak ere, "babesleku izan dira eta izaten dira", azaldu dute Kabiak elkartetik.



Saharako Bojadorko liburutegia. KABIAK ELKARTEA



Bibliobusa Saharako Dairasen. KABIAK ELKARTEA



Bubisher elkartearen erakusketa Altsasuko liburutegian.



Oholtzara salto programan parte hartu zuten ikasle eta dantzariak. IORTIA

Ikasleak dantzari bihurtu, eta Oholtzara salto egin zuten

Dantzaz konpainiako dantzariak lagunduta koreografiak sortu zituzten eta ostiralean eszenara eraman zituzten

ALTSASU

Apirilaren 28an, ostirala, egun handia zen Altsasuko BHIko, Iñigo Aritza Ikastolako eta Korazonistakeko DBH 2. mailako eta Andra Mari Ikastolako DBH 1. mailako ikasleendako. Aste batez Dantzaz konpainiako dantzari profesionalekin dantza saioak izan ondoren, ikasitakoa eta sortutakoa erakusteko garaia heldu zen: *Guri dagokiguna* deitutako emanaldia eman zuten Altsasuko Zumalakarregi plazan. Guztira, zortzi klasetako 182 ikasleak parte hartu zuten ikuskizunean. Dantzaz konpainiak

ere izen bereko ikuskizuna eskaini zuen.

Oholtzara salto programak arte eszenikoak gazteen artean sustatzea du helburu, eta horren barruan ikasleek bost eguneko erresidentzia egiten dute ikastetxeetan. Hortaz, aurten, *Guri dagokiguna* Dantzaz konpainiako Suzanne Miller koreografoak sortutako ikuskizunean oinarrituta, dantzari profesionalak saioak eskaini zituzten aurreko astean ikastetxeetan. Ikasleek gorputzarekin ere adierazi dezaketela ikasi zuten, zenbait gauza gehiagoren artean.

Erkudengo Ama Abesbatzaren emanaldi solidarioa, Baluartan

Igandean Nafarroako Abesbatzen Elkarteak antolatutako kontzertu batean parte hartuko du Altsasuko koruak

ALTSASU

Nafarroako Abesbatzen Elkarteak Espainiako Minbiziaren Kontrako Elkartearen (AECC) aldeko kontzertu solidarioa antolatu du maiatzaren 7an, igandean, 12:00etan, Iruñeko Baluartan. Tartean Altsasuko Erkudengo Ama Abesbatzak parte hartuko du. Sarrerak 10 eurotan eros daitezke Baluartan.

Kontzertua Joaquín Torrensek aurkeztuko du eta bost abesbatzek eta Josu Eberdin musika zuzendariak eta egileak parte hartuko du. Bere abesti batekin, *Zatoz*,

amaituko da emanaldia. Bestetik, hauek dira parte hartuko duten abesbatzak: Garraldako Orreaga, Javier Iriartek zuzenduta; Nafarroako Unibertsitate Ospitaleko Salus Abeslariak korua, Imanol Erkiziak zuzenduta; Tuterako Griseras ikastetxeko haur abesbatza, Pedro Pablo Garijok zuzenduta eta Inma Arroyok zuzendutako Altsasuko Erkudengo Ama Abesbatza.

Maiatzaren 27an, larunbata, Erkudengo Ama Abesbatzak *In memoriam* kontzertua emanen du Iortia kultur gunean.

"Lagundu baino, nik uste artea laguna izan dudala"

IÑAKI PIKABEA BURUNTZA 'PITI' ARTISTA

'Ekinaren Ekinez' eskultura, margolan eta collage erakusketa maiatzaren 5ean, 6an, 7an eta 12an ikusgai egonen da Etxarri Aranazko kultur etxean

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI A.

Maiatzaren 13an 30 urte egingen ditu Pello Mariñelarena Imaz etxarriarra Parisko espetxe batean hil zela, "berandu eta gaizki" artatu baitzuten, nahiz eta gaixotasun larria izan. Mariñelarena "sortzailea zen, sentibera, barne bizitza aberatsekoa. Gaitasun berezia zuen sakon-sakonetik irteten zitaion barne bulkada hori margolanetan eta olerkietan islatzeko", azaldu dute senide eta lagunek. Espetxean hainbat gauza sortzen jarraitu zuen. Mariñelarenaren heriotzaren 30. urteurrena gogoan, *Espetxea eta Sorkuntza* egitaraua prestatu dute Etxarri Aranazten. Jardunaldiaren barruan, maiatzaren 5ean, 6an, 7an eta 12an, Iñaki Pikabea *Piti* preso ohiaren *Ekinaren Ekinez* erakusketa izanen da Etxarri Aranazko kultur etxean. Maiatzaren 10ean berak eta Jokin Urain *Kixkur*-rek *Sorkuntza* eta *Espetxea* deitutako mahaingurua egingen dute.

Noiz hasi zinen artelanak sortzen?

Nik uste apaldiko gauza bat dela. Txikitik hasi zen. Ogibide eskolan ikasi nuenean marraztea gustatzen zitzaidan. Hor sortu zitzaidan zaletasuna.

Espetxean artea sortzen jarraitu zenuen.

Espetxean lehenengo non zauden jakin behar duzu; zeure burua ondo kokatu behar duzu. Ordu asko dira eta egoera asko bizitzen dira, eta horren ondorioz, pixkanaka-pixkanaka gauzak sortzen

hasten zara. Nik uste hori preso guztiek egin izan dugula, modu batean edo bestean; batzuek idazteari ekiten diote ... Nik ere zerbait idatzi nuen. Barruan duzuna kanporatu behar duzu.

Beraz, arteak laguntzen du?

Bai, asko. Bakoitzak berearekin, baina bai. Aukeren eta lekuaren arabera da. Leku askotatik pasatu gara, egoera desberdinak bizi izan ditugu eta berehala sentitzen duzu barrukoa kanporatzeko beharra edo gogoa. Poliki-poliki hasten zara.

Eta nola da espetxean sortzea? Materialak eta abar nola lortzen zenituzten?

Hasiera batean, gutxienekoarekin egingen nuen. Gero, bakoitzaren gaitasunaren arabera, erakusketan ikusiko da aguakate hezurkin egindako artelan bat, adibidez. Halako batean, lanean hasi eta hezur batetik zerbait ateratzen da. Gauza bereziak egiteko eskaerak genituen eta ahal zirenak sartzen ziren. Espetxe guztietan ez zen berdin: batzuetan, aukera gehiago zuten eta beste batzuetan, berriz, gutxiago. Istorioak. Gero, berriro espetxeratu nindutenean, Arte

"LEKU GUZTIETATIK IKUSITAKO, BIZITAKO ETA PAIRATUTAKOAK IKUS DAITEKE ERAKUSKETAN"

Ederretan matrikulatzeko aukera izan nuen. Horrek materiala lortzeko aukera gehiago eman zidan. Asko borrokatuta; pintzel bat edukitzea izugarrikoa zen. **Estilo propioa sortu zenuen? Nola definituko zenuke?**

Nik ez nuke esango halako estiloa edo bestelakoa dudarik. Nik denengandik jaso nuen zerbait. Ikasterakoan ikusi eta ikasi ahal probak egiten nituen. Niregan sortu zena. Esperimentazioa egin nuen, ez nuen kopiatzen, baina ikasitakoa jarraituz esperimintatzen nuen. Zergatik ez dut xaboiarekin egingen? Horrela. Denetatik pixka bat hartzen nuen. **Egoera horretan zure sormena handitu egingo zen, ezta?**

Bai. Sormena eta komunikatzen eta garatzen jarraitzen duzu. Horrek ematen dizu beste ikuspuntu bat. Bizitutakoa, ikusitakoa, pairatutakoa... gauzatzeko eta adierazteko nahia.

Zertan datza 'Ekinaren Ekinez' erakusketa?

Hoberena ikustera joatea da. Baten batek esan dezake: "Nik egin dezaket hori". Noski! Nire ustez, garrantzitsuena da jendearekin partekatzea eta ikustea. Erakusketa ez da artelanak saltzeko. Zer ikus daiteke erakusketan? Leku guztietan ikusitako, bizitako, eta pairatutakoen margoak, formak eta collageak. Bereziak collageak izugarri gustatu zaizkit. Collageak egiteko sartzen zizkidaten aldizkarietatik



Iñaki Pikabea 'Piti' artista erakusketa prestatzen. UTZITAKOA

irudiak hartzen nituen eta jolasten joaten nintzen. Orduan, laburbilduz, hori da erakusketa: barneko gogo, egoera desberdinak gauzatea edo azaltzea. Bizitzaren eragina ere bai. Gure gizartea, gizakiak eta ingurumena ikusteko modua ere bai. Nahiko agerikoa da.

Zenbat artelanek osatzen dute?

Gehienak nahiko txikiak dira. Barruan egonda ezin duzu gauza handirik egin. Xumeak dira, zuzenean egindakoak. Ez dakit zenbat egon daitezkeen eta lekuaren arabera izaten da.

Zein denbora tartetan sortutakoak dira?

Denboraldi desberdinetan egindakoak dira. Ezin dut data finko bat eman. Lan batzuk barruan egindakoak dira. Eskulturak, esaterako, barruan egin daitezke, baina horiek egiteko erabiltzen nituen leihotik pasatzen zizkidaten materialak. Adibidez, karton pluma delakoa. Dena aprobeztatzen nuen. Frida Kahloren bat egin nuen. Soberan geratzen ziren puxketak gordetzen nituen. Urrea bezala gordetzen nituen. Zura-entzat den kola txuriarekin kolatzen nuen, horrekin egiten joaten nintzen eta azkenean eskultura bat egin nuen. Kanpoan nengoela fundizio batera eramane nuen. Horrelako eskulturak egiteko egur zatitxoak, poliespana eta abar erabiltzen nituen, esku- ra etortzen zitzaidan edozer.

Material horietan zerbait ikusten zenuen?

Bai.

Artelanak sortzen jarraitu duzu?

Bai, gauzatxoak egiten ditut. Lehendik egindako zerbait ere

berriz hartu izan dut. Jubilatuta nagoenez...

Nola lagundu dizu arteak?

Nik esango nuke besteen artean lagun izan dudala artea; pertso- nez gain, lagun izan dudala.

Maiatzaren 10ean 'Sorkuntza eta Espetxea' mahai ingurua egingen duzu Jokin Urain 'Kixkur'-rekin. Zertaz hitz egingen duzue?

Oraindik ez naiz Jokinekin egon, baina nik uste gutxi gorabehera hitz egingo dugula zer ematen dizun hau edo bestea egiteak eta zerk bultzatuta edo eraginda sortzen dugun. Neurri batean, bai idazleak, bai ni bezalakoek egiten duguna da kontraesanak edo gauzak agertzea.

Arteramiñe elkarteko kideak zarete, zer da?

Horrelako idazlanak eta gauzak landu dituzten presoak daude elkartean.

Pello Mariñelarena ezagutu zenuen?

Nik ez nuen ezagutu, baina gogoratzen naiz Etxarri Aranatzan atera zuten bere liburua irakurritan ohartu nintzela zenbait gauzatan bat egiten genuela. Mariñelarenak egoera asko adierazi zituen. Liburu horretan bistan da. Poesiaren oso zalea ere bazen, ikusi nuenagatik. Oso konpletoa. Bitxia da bazuelako horrelako joera bat: baditu lan asko berdin- berdinak bata ikatzearekin, bestea oleo lana da...


"NIK DENENGANDIK JASO NUEN ZERBAIT; IKUSITAKOAREKIN ESPERIMENTAZIOA EGITEN NUEN"

'Sorkuntza eta Espetxea', 30. urteurrenean

Pello Mariñelarena Imaz etxarriarraren heriotzaren 30. urteurrenean Sorkuntza eta Espetxea egitasmoa egin dute egunotan Etxarri Aranatzan. Jardunaldia apirilaren 30ean hasi zen *Apai z kartzela* film dokumentalaren emanaldiarekin eta datozen egunetan jarraipena izanen du maiatzaren 5ean, 6an, 7an eta 12an Etxarri Aranazko kultur etxean izanen den Iñaki Pikabea *Piti* preso ohiaren *Ekinaren Ekinez* erakusketarekin (ostiralean 18:00etatik 20:00ak arte eta asteburuan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara). Maiatzaren 10ean, osteguna, 19:00etan, Pikabea beraren eta Jokin Urain *Kixkur* preso ohiaren *Sorkuntza eta Espetxea* deitutako mahai ingurua izanen da, Etxarri Aranazko kultur etxean. Maiatzaren 13an, larunbata, 12:30ean, *Pello Mariñelarena Imaz XXX urte gogoan* ekitaldia izanen da, Etxarri Aranazko plazan.

BAZTERRETIK

OIHANE AGIRRE ULAAIAR



UTZITAKOA

Dantzaren egunean, dantza

Apirilaren 29an, larunbata, Dantzaren Nazioarteko Eguna izan zen eta ospatzeko Etorrizuna Dantza Eskola eta Taldea kalera atera ziren. Eskola osoak parte hartu zuen dantza emanaldian, txikien taldeetatik hasi helduen taldeetara. Dantzariak ikasturtean zehar prestatutako koreografiak erakutsi zituzten.



Maribel Mazkieran, ezkerretik lehenengoa, 2022ko artisau azokan. JOAN KEPA EVERTS



Maribel Pérez de Eulate, lehen planoan, ehoziri ikastaroan. UTZITAKOIA

"Lana egiten zaudenean horretara zaude"

Maribel Mazkieran Altsasuko lentzeria ikastaroko irakaslea da eta Maribel Pérez de Eulate ehoziri ikastarokoa. Bi ikastaroetan sortutako lanak Alde Zaharreko festetan zehar ikus daitezke Gure Etxean, baita igandeko artisau azokan ere

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Zer egiten duzue lentzeria?

M. Mazkieran: Lentzeria egiten dugu, eta joste lanak ere egiten ditugu. Baserritar jantzi-

ren bat egin izan ohi dugu: mantalak, zapiak... Ez dakit zergatik deitzen den lentzeria, barruko arropen konnotazio hori baitu. Baina beti deitu izan zaio josketari, lentzeria eta ehoziria.

2 Eta zer da ehoziria?

M. Pérez de Eulate: Teknika oso zaharra da, eta galtzen ari da. Puntillak egiten dira, baina askoz gauza gehiago egin daitezke. Erakusketan hori

erakutsi nahi dugu: loreak, bitxiak, mantaletako apaingarriak....

3 Nolakoak dira klaseak?

M. M.: Ikasleen nahietara egokitzen naiz. Denboraldika izan ohi da: batzuetan bainikak egin nahi dituzte, beste batzuetan kaikuak... Gehienetan, mantalak eta zapiak egiten dituzte, Santa Ageda edo Eguberrietara begira.

4 Eta taldeak?

M. M.: Hogeit bat pertsona gaude eta esango nuke ni zaharrenetarikoa naizela. 50 eta 60 urte inguruko emakumeak datoz. 80 eta 90 urterekin ere etortzen ziren. Olaztiko eta Ziordiko taldeetan jende gazteagoa dago.

M. P. de Eulate: Ikasturte arraroa izan da, beste urte batzuetan beranduago hasi ginen... Hamar bat pertsona gaude. 50 urtetik gorakoak dira. Duela 30 urte hasi nintzenean lagunak esan zidaten zaharrentzat zela.

5 Nola lantzen dira?

M. P. de Eulate: Kuxin bat dago eta bertatik ehoziri deitutako makil batzuk daude; behean marrazkia markatuta dago eta ehoziriak mugituz hariak elkartzen dituzu forma sortuz. Agian, ikusten duzunean zaila ematen du, baina egiten duzunean ez. Behin martxa hartuta ezin duzu utzi, behin hasten zarenean harrapatzen zaitu.

M. M.: Lentzeria da hari bat izkin batetik atera eta lantzen joatea.

6 Zenbat denbora behar da?

M. M.: Astean bi ordu egiten genituen eta orain ordu eta erdi. Gutxi iruditzen zait; etxera lan asko eramaten dut.

M. P. de Eulate: Lanaren araberakoa da, baina ordubetez horretara jartzen bazara, asko egin daiteke.

7 Zer onura ditu?

M. M.: Batzuetan esaten diet ez dakidala zertarako etortzen diren klaseetara egiten badakitelako, baina esaten didate unetxo hori hor egoteko dela. Helburu horrekin sortu ziren nik uste. Ez dituzu lagunak egiten, baina adiskidetasunak sortzen dira.

M. P. de Eulate: Lasaitu egiten zaitu. Egiten jartzen zarenean burua horretara dago, eta ez dizkiozu beste gauza batzuei bueltak ematen. Horretara zaude.

8 Zer behar da lentzeria edo ehoziria egiteko?

M. M.: Lehenengo gauza ikasteko gogoia izatea da. Nik ez dut inon ikasi, egiten eta desegiten ikasi dut. Perfekzionista naizela esaten didate, baina nik uste honetarako izan behar zarela. Ikasteko interesa izatea eta lana desegiteko ahalmena izatea.

M. P. de Eulate: Pazientzia. Edozein lanetan bezala lehenengoan ez zaizu ongi aterako, baina ez duzu amore eman behar. Konstantea izan behar zara.

9 Eta eskuetan abildadea...

M. M.: Esperientziarekin lortzen da.

10 Nolakoak izango dira erakusketak?

M. M.: Ikasturtean zehar egindako guztia erakusten dugu. Batzuetan pieza txikiak daude eta beste batzuetan oso handiak, mahai zapiak, esaterako. Mahai oihalak, gortinak, mantalak, zapiak...

M. P. de Eulate: Ikasturtean zehar egindako gauzak. Artista hutsak dira.

11 Azokan zuzenean egongo zarete, ezta?

M. P. de Eulate: Bai, azokara lanera ateratzen gara, jendeak zuzenean nola lan egiten dugun ikus dezan.

PROIEKTU BERRI BAT DAUKAZU?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



gk
DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA



619 821 436
 info@gkomunikazioa.eus
 www.gkomunikazioa.eus
 Foru plaza, 23-1. Altsasu